1919·2019

ARGIA

Exarcheia eztandatik gertu

GOBERNUAREN OLDARRALDIAREN AURREAN, AUTODEFENTSA ATENASKO AUZO ERREBELDEAN

23-27.orriak

#2.669 | 2019 / 12 / 08 | 3,90 €

Frantzia herritarren fitxaketa numerikoaren ametsa betetzen

10 | NET HURBIL

"Ezin dugula ezer egin esaten digute medioetatik boteretsuek"

12 | MIREN ALCEDO

"Inork ez dauzka bitartekoak historia ofizialari aurre egiteko"

44 | JEAN-GABRIEL PÉRIOT

AZOKA 2019

DURANGOKO
AZOKAN
ARTEKALE
KALEA 28-31

EROSI
INTERNETEKO
ARGIAREN
AZOKAN
azoka.argia.eus

ARGIA

943 37 15 45 azoka@argia.eus

ARGIA

2.669 zenbakia I Abenduak 8, 2019

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
07 I EZ HANKA EZ BURU
08 I EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
ANGEL BALLESTERO

Iritziak

17 I KARMELO LANDA
18 I BEA SALABERRI
19 I AHOZTAR ZELAIETA
19 I CASTILLO SUÁREZ
20 I MIKEL BASABE KORTABARRIA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

38 I BIZI BARATZEA
40 I ARGIA KOMUNITATEA
42 I DENBORAREN MAKINA
48 I KULTUR-KRITIKAK
50 I ZUZENEKO EMANALDIA
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA: RAFA ALDAI
54 I BERANDUEGI

10 I **KONTROL SOZIALA FRANTZIAN:**
AEB eta Txinaren ondoan izan nahi du Macronen gobernuak: Aurpegi ezagupena behartuko duen ALICEM aplikazioa dugu urrats bat gehiago. Jenofa Berhokoirigoinek erreportajea egin du gaiaz: Herritarren fitxaketa numerikoaren ametsa betetzen ari da Frantzia.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 I MIREN ALCEDO
"Gizartea bezalakoa da justizia, klasista, arrazista, eta emakumeok bakarrik gaude"
Danele Sarriugarte Mochales

22 I NAZIOARTEA
Erresistentzia taupadak Atenasko bihotzean
Amaia Lekunberri Ansola

28 I INGURUMENA
Merkataritza gunean, urruneko salgaiak hurbileko lanak
Iñaut Gonzalez De Matauko Rada

34 I GIZARTEA I AWEN IORWERTH
" Jendeak gaixo dagoenean bere hizkuntzan artatzea nahi du"
Onintza Irureta Azkune

44 I KULTURA I JEAN-GABRIEL PÉRIOT
"Gai politikoekin jendearengana iristeko ikusleen ohiturak zalantzan jartzen ez badituzu, beti geratuko zara erdibidean"
Pablo La Parra Pérez

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Igor Galarza, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

Geopolitikaren narkoak

JAIR CABRERA

Mexikoko Estatuak *narkoaren aurkako gerra* abiatu zuenetik hamairu urtera, AEBetako presidente Donald Trumpek iragarri du lanean ari direla kartelak terrorista gisa izendatzeko. Hartara, Ekialde Hurbilean bezala, haien aurkako operazio militarrak egiteko, besteak beste. Mexikoko subirotasunaren aurkakotzat jo du Obrador presidenteak.

Irudian: Chihuahuako Ciudad Juárezen AA kartelako sikario bat, hilik. AAko kideek 2 zenbakia tatuatuta eramaten dute. Mugaldeko hiri horretan egunero sei eta hamar pertsona artean hiltzen dituzte drogarekin lotutako talde kriminalek.

HERRI INDIGENEK KOMUNAREN ESANAHI BEREZIA DAUKATE, SOZIALISMO PRAKTIKOA IZENDATUA IZAN DENA, ETA HORREKIN SORBURUA IZAN DAITEZKE BIZITZAREN BESTE ANTOLAKUNTZA BAT ERAGITEKO, BIZITZA BERA ETA BIZITZA SORTZEA BERA ERDIGUNEAN JARRIZ, DIRUA-MERKANTZIA-DIRUA SISTEMAREN ORDEZ

Silvia Adoue
irakasle argentinarra

KATALANEK IRABAZI NAHI BADUTE, ASKOZ GEHIAGO POLARIZATU BEHAR DUTE, ASKOZ GEHIAGO PRESIONATU ETA SAKRIFIZIO MAILA HANDIAGOAK ONARTU

Paul Engler
Desobedientzia zibilaren manuala liburuaren egilea

EZ DIOGU JARRIKO BETORIK ELKARRIZKETARI ETA GUK ERE EZ DUGU ONARTUKO INONGO BETORIK

Maria Chivite, Nafarroako Gobernuko lehendakaria

NAFARROAKO ESKUINTZAR HORI OSO HASERRE DAGO, BAINA JOAN DAITEKE OHITZEN; VOX, PP ETA C'S-EKIN EZIK, GAINERAKO INDAR POLITIKOEKIN HARREMAN NORMALAK DITU EH BILDU-K

Arnaldo Otegi
EH Bilduko koordinatzailea

Estrasburgoko erraustegia neurketak faltsutzen harrapatu dute

ZERO ZABOR @zero_zabor

Estrasburgoko (Altsazia) erraustegian teknikari lanetan aritu diren bi langile kualifikatuk *Rue89-Strasbourg* kazetan azaldu dute nola errauste planten jabeek baliatzen duten beren buruen kontrolatzeko legeak ematen dien ahalmen zabala erraustegiaren isuri toxikoak faltsutzeko. Iruzur horri esker saihesten dituzte administrazioak ezarri beharreko isunak (txikiak, egia) eta baita beren errauste plantetan kutsaduren emisioak hobeto kudeatzeko egin beharrezko diru inbetsioak ere.

Sistema oso erraza da eta auto-kontrola deitzen da: erraustegiek berek kontrolatzen dituzte beren kutsadurak eta haiek erabakitzen dute departamenduko ingurumen agintariei (Frantzian DREAL siglaz ezagunak) zein datu eta nola bidali. Auto-kontrol horretarako dauzkaten sistemetako bat da konbustioa analizatzeko sistema. "Arazoa da –argitu du Cristophek– sistema informatiko horien egileek kodeak bezeroei ematen dizkietela". Horri esker, kutsadurak halako maila jakin bat gainditzen baldin badute, erraza da emaitzak informatikoki ezabatu edo aldatzea. "Errauste labea abian jartzerakoan, edo labera iritsi behar ez zuten zaborrak iristen direnean, PVCzko leihoak esate baterako, horiek erretzean azido kloridrikoa eta errautsak ziztu bizian igo daitezke. Eta orduan, arauetan sartu ahal izateko datuak manipulatzen dira 'zati 10' eginez".

Kazetariak programa informatikoaren egileengana ere jo du eta hauek esan diote bezeroak ezin manipulatuzko datuen kopia gordetzen dutela haiek eta agintarien esku dagoela, baldin eta nahi badituzte enpresak gero administrazioari erakutsi dizkionekin konparatu. Hori bai, esan du enpresa informatikoak, DREALeko agintariek inoiz ez dizkiete datu erreal-erreal horiek eskatu.

Aurten bertan Estrasburgoko erraustegiak behin eta berriro gainditu ditu dioxina emisioak, zehazki abuztuaren 21aren eta irailaren 19an. M3-ko 0,17 nanogramo dioxina isuri zituzten, maila m3-ko 0,10 ng-tan dagoenean. Baina hori media zen, zeren eta bi labeetako batek m3-ko 0,23 ng eman zituen. DREALeko arduradunak (patxadaz, hori bai) erraustegian azaldu ziren... azaroaren 4an. Tamala: inspektorea azaldu zenean, kasualitatez bi labeak itzalita zeuden. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Haritza

ARITZ GALARRAGA

Asuntoaz dakien bati entzun nion, asuntoaz segur aski gehien dakienari –Jakoba Errekondo izeneko bati, ezaguna egingo zaizue agian–: haritza gora, haritza behera ibiltzen dutela gaur egunean gure agintariek –eta horrek ematen digula dauzkagun agintarien neurria–; baina, benetan, euskaldunontzat, lizarra dela zuhaitz, ejem, izarra –besteak beste, etxe inguruetan jartzen da, tximistak uxatzeko edo; to, superzuhaitza–. Zuzenki hazten omen da lizarra, haritzak oker egiten duen bitartean gora, nekez, hala-hola. Are: garai batean edozein zuhaitz izendatzeko erabiltzen zen haritz izendapena. Gauza gehiagori buruz hitz egiten jarraitu zuen –gaztainondoa dela kolonizatzailea, alegia espainola, nahiz Duzunaritze-Sarasketan geunden, Nafarroa Beherearen bihotzean–. Baina nik jada ez nion kasu gehiago egin. Ezin.

Ezen, ideia guztiz erakargarria egin zitzaidan: haritza, edozein zuhaitz izendatzeko terminoa; ondorioz Haritz, edo Aritz –hatxearen afera beste baterako utziko dugu–, edozein gizamodu, gizon edo gizatxar, izendatzeko antroponimoa, anglofonoek erabiltzen duten John Doe haren moduko bat, identifikatu gabeko pertsona bat, kaleko pertsona bat, don inorrez bat izendatzeko. Neronek askotan desio izan dut identitate neutroagoa eduki, hainbesteko kargarik izango ez lukeena, Jon, Jean edo Juan. Izenak esklusibo egiten ninduela uste nuen lehen –orain izen bereko futbolari ugari dago–, batez ere kanpoan –gure klasean hiru ginen: Xubel, Kanpa eta, noski, Gala–. Egun hauetan ezagutu dut Haritz izena duen lehen euskalduna, erregistroan Arich jarri zioten, 1969 urrun hartan, Nafarroako izen bat zelakoan pasa zena. 1969tik, beraz, eta gutxienez, gabiltza kalaka ematen, ustezko gure esklusibotasunean. Baina orain jakin dudala edozein gizamodu izendatzeko erabil daitekeela Haritz, edo Aritz, has naiteke nire izenarekin ere berradiskidetzen. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"KLIMA ALDAKETARI AURRE EGITEKO EKINTZA ZEHATZAK EGIN BEHAR DITU BATZORDEAK"

EUROPAKO LEGEBILTZARRAK EUROPAKO BATZORDEARI EGINDAKO ESKAERA

Madrilen abenduaren 2tik 13ra egingo den klima larrialdiaren aurkako goi bilera dela eta, Europako Legebiltzarrak klima larrialdia aldarrikatu du. 429 boto aldekoak izan dira, 225 aurkakoak eta 19 abstentzio. Eskuin muturreko taldeek aurka egin dute eta hauen Europako Kontserbadore eta Erreformisten taldearen esanetan, "dena da asmakizun bat".

BRUSELA (2019/01/22)

EKONOMIAREN TALAIAN

Euskal oasi fiskala, soziala baino

JUAN MARI ARREGI

Euskal erakundeetatik ematen ari diren mezua da "Euskadi oasi bat" dela. Langabezia, pobrezia eta bazterkeria soziala, jendartearen parametro normal eta teknikoetan egon litekeena dela diote. Kanpora begira, ongizate rankingetako bikaintasun eta lidergoaren bandera jasotzen dute.

Jarrera hori lizun bezain gordina zaigu, errealitate ekonomiko eta sozialaz datu zehatzak azaldu orduko. Cáritas antolakunde batere susmagarriak eman ditu berriki Foesa Euskadi 2019 txostenean. Bazterturik dauden 334.000 pertsona zenbatu ditu EAEn –hau da, biztanleriaren %15,2– eta "gizartetik kanporatutako" beste 90.000 lagun ere egoera kritikoan daude. 50.000 etxebizitzatan baldintza osasungaitzak jasaten dituzte eta 25.000tan pilatuta bizi dira. Gehiegizko gastuak 233.000 herritar pobreziaren mugan jartzen ditu; 31.000 familia "etxebizitza ezegonkorrean" bizi dira, kanporatuak izateko arriskuan; eta 69.000 familiatan sendagaiak erosteari edo dietak jarraitzeari utzi diote zailtasun ekonomikoak medio. 62.000 etxetan heldu guztiek ezgaitasunen bat, gaixotasun kronikoa edo osasun arazo larriak dituzte, eta beste 26.000 etxetan menpekotasuna duen eta laguntzarik jasotzen ez duen pertsonaren bat dago.

Gainerako gizartea hoberantz doan bitartean, bazterkeria eta pobrezia sozialaren argazki horrek erakusten du EAEn desberdintasuna gorantz doala izugarri. Eta hori ikusita, ondarearen zerga kentzea pentsatzea ere –180 milioi euroko sarrerak ekartzen ditu urtero– beste zaplazteko handi bat litzateke sufritzen ari direnentzat. Ez hori bakarrik, beste behin frogatuko litzateke Eusko Jaurlaritza kapitalismo basatienaren menpe dagoela. EAE ez da oasi sozial bat, fortuna handientzako oasi fiskala baizik! ●

ANALISIA

Euskaldunaren kolapsoa

URKO APAOLAZA AVILA

Duela 35 urte, abenduaren 1ean, Euskaldunako senide emakumeek 24 orduko itxialdia egin zuten. Ontziolako beharginek egunak zeramatzaten poliziari ahal zuten guztiarekin aurre egiten –tiragomak sinbolo bihurtu ziren–. Bestaldean, tankeak eta benetako su-balak. Espainiako polizia iritsi zen egunero 400 ke-pote eta 1.000 gomazko pilota jaurtitzera.

1984ko azaroaren 23an borroka ausart baten alde mingotsena bizi zuten langileek, polizia jo eta su sartu baitzen Bilboko Olabeagako instalazioetara eta hainbat pertsona larri zauritu zituen; Pablo González Larrazabal bihotzekoak jota hil zen oldarraldian.

Ontzigintzaren birmoldaketa mamu baten itzala bezala ari zen zabaltzen. Sektorea krisian zen 70eko hamarkadatik, Europako Ekonomia Erkidegoak bultzatutako politikaren ondorioz. Ez zen nolanahiko arazoa, soilik Nerbioi ezkerraldean zuzeneko 4.000 lanpostu eta zeharkako beste 20.000 zeuden jokoan. 1983an PSOEren Gobernuak "birmoldaketa eta berrindustrializaziorako" dekretua onartu zuen. Eufemismo horrekin, *errentagarriak* ez ziren ontziolak itxi eta soberan zeuden langileak Enplegu Sustapenerako Funtsera batu nahi zituen.

Euskaldunako borrokaldian nabarmentzeko ezer badago, hori da langileak abangoardian jarri zirela, eta ondorioz, lortu zutela sindikatu gehienak eta baita EAJ alderdia bera ere euren aldera eramatea. UGTk, ordea, akordioa sinatu zuen Industria Institutuarekin 1984ko azaroaren 15ean –Estatuan 11.000 lanpostu murriztu eta praktikan Euskalduna ixtea zekarren–. Hurrengo egunetan Deustuko zubian denok gogoan ditugun irudi ikusgarriak ematen hasi ziren.

Giro hartan, Bilboko sarbide nagusietakoa kolapsatu edo Sondikako aireportua okupatzea ez ziren oztopo izan EAJren Eusko Jaurlaritzak *tsunami* eta mobilizazio haiek –aho txikiarekin bada ere– babesteko. Akaso, gaur egun Behobiako "joan-etorri librea eta askatasun ekonomikoa" –Josu Erkoreka bozeramaileak esan bezala– inportanteagoak ote dira?

Azaroaren 20an, Santi Brouarden hilketak gehiago piztu zuen haserrea. Greba orokorraren hurrengo egunean Euskaldunaren asaltoa hasi zuen poliziak; José Barrionuevo Espainiako Barne sailburua –eta GALen ekintzengatik kondenatuak– omen zegoen operazioaren atzean, Bizkaitik kanpoko indar armatuak eramanda. Azaroaren 23an Miranda de Ebroko erreserba orokorreko konpainia batek metrailetak ere erabili zituen: bala zaurituak eta langile bat hilda.

Sekuentzia kronologiko horretako atentatu eta erasoen arteko lotura argitu gabe dago, eta lotsagarria da oraindik polizia horien Facebookean irakurtzea "arrastoan sartu genituen" eta antzeko aipuak; gaurko "*a por ellos*" ezagunaren starringak izan zitezkeen. Inpunitatea gogor ainguraturik dago estatu-aparatuetan. ●

Pirritx, Porrotx eta Marimototxen kontratua legezkoa zen

Nafarroako Kontseiluak erabaki du pailazoek Iruñeko Udalarekin zuten kontratua –Joseba Asironen taldeak egindakoa– legezkoa dela eta nahikoa dela joan den azaroaren 29an pailazoek Iruñeko Baluarten egin behar zuten *Bizi Dantza* ikuskizuna aurrera eramateko. Kontratazioa prozedura egokiagoarekin egin zitekeela ebatzi du, baina halako kontratu artistiko batek izan beharreko oinarrizko osagaiak badituela ere argi zehazten du aho batez hartutako erabakian.

ARTEKARIAK ERE BAI

Orain Nafarroako Kontseiluak egin duen bezala, lehenago Nafarroako Artekariak ere aholkatu zion Iruñeko Udalari baimen zezala ikuskizuna. Navarra Sumak oraingoz ez du halakorik egin.

ARRAZOI POLITIKOAK ATZEAN

Hasieran prozedura kontuak aipatu bazituzten ere, gaur egun Enrique Maya alkateak argi onartzen du arrazoi politikoak direla kontratu etenaren atzean. "Ezker abertzalearen pailazoak dira eta udalak ordainduta ez dira etorriko. Bilboko alkate zen Azkunak ere egin zuen orain gu hemen egiten ari garena".

LAB

HITZARMENIK GABE BILUZIK. Greba eta borroka egunak dituzte Gipuzkoako zahar egoitzetako langileek. ELAk deitutako hilabeteko grebari, joan den ostegunean CCOO eta LABek egindakoa gehitu zitzaion. LABek deituta elkarretaratzea egin zuten azaroaren 27an Donostian, Foru Aldundiaren eraikinaren aurrean: "Hitzarmenik gabe biluzik gaude!" leloa zeramaten kartelak erakutsi eta gerritik gora zapi more bat besterik ez dutela azaldu ziren grebalariak, hitzarmenik gabe haiek nola sentitzen diren adierazteko.

DESORDENA PUBLIKOA?

6.600

Hamaika gaztek 6.600 euro ordaindu beharko dute, Ertzaintzak Mozal Legea baliatu eta isuna jarri ondoren. Ekainaren 30ean Red Bull Cliff Diving txapelketa egin zen Bilbon. Jauzilari profesionalak itsasadarrera salto egiten zebiltzala, aurrez den Pedro Arrupe pasabidean pankarta erraldoia jarri zuten "Bilbo ez dago salgai" goiburuarekin. Desordena publikoa leporatu diete.

HILTON HOTEL KATEARI esleitu diote Lekarozen (Nafarroa) egiteko asmoa duten Aroztegia makro-proiektuaren hotela. Luxuzko hotelen multinazionala da eta 126 logela izango ditu; batera egingo den urbanizazioak 226 etxebizitza. 2022rako bukatu nahi dute.

ZUBIETAKO ERRAUSTEGIA probaldi fasean martxan da joan den azaroaren 28tik aurrera. Hainbat matxurarengatik atzeratu egin da erraustegiaren hasiera. Usurbilgo Udalak manifestazioa deitu du abenduaren 13rako.

IZOKIN ATLANTIARRA Elizondoko Txokoto presaraino ailegatu da Bidasoan goiti. Ibaian oztopoak ezabatzeko estrategiak ahalbidetu du aurrerapen hori, gutienez duela 30 urtetik ez baita horrelakorik egiaztatu ahal izan. 409 izokinek lortu dute aurten Bidasoan goiti egitea.

HERRITARREN FITXAKETA NUMERIKOAREN AMETSA BETETZEN ARI DA FRANTZIA

AEBen eta Txinaren ondoan izan nahi du Frantziako Estatuak: kontrol sozialerako teknologiaren esparruan indartsu eta etsenplu. Iduri ezean, ari da, ari, diskretuki eta herritarren onerako dabilenaren postura atxikiz. Aurpegi ezagupena behartuko duen ALICEM aplikazioa dugu urrats bat gehiago. Mobilari begira jarri, honek aurpegia ezagutu eta zerbitzu publikoak eskura ukanen ditu herritarrak. Amesten duen jendarte kontrolatura heltzeko beste urrats bat, beraz.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Plazaratutako helburua interneteko pertsona guztien identifikazioa eta anonimotasunaren bukaera denean, beharturiko aurpegi ezagupenean oinarrituriko nortasun numerikoaren proiektu hau borrokatu besterik ezin daiteke egin". Interneten herritarren eskubideak defenditzen dabilen La Quadrature du net elkartearen hitzak dira eta Frantziako Gobernuak bideratzekoa duen ALICEM (*Authentification en ligne certifiée sur mobile*–Mugikor Bidez Bermaturiko On line Egiaztapena) aplikazioaz ari da.

Ai, legediak eta norberaren askatasunak traban ditu gaixo Frantziak: kontrol sozialerako teknologiak ez ditu nahi bezainbat biderkatzen ahal, behin omen giza eskubideen herri izandako Estatu horrek. Alta, ez du amets ttikia, eta oraindik handiago du errealitate bihurtzeko nahia: sektore horretako lider izan nahi du. Ameriketako Estatu Batuen eta Txinaren ondoan egon nahi du. "Kultura frantsesa ez bezala, kultura txinatarra bizi pribatuen zainketaren onarpenean dago gehiago", Frantziako INHESJ Segurtasun eta Justizia Goi Ikerketen Instituzio Nazionalaren azken txostenean irakur daitekeenaz. Suerteduna Txinako Estatua.

Kontrol soziala errazkiago –ez bada ohartu gabean– liseritzeko asmoz, diskretuki, eztiki eta "aukera emanez" bideratzea erabaki du Frantziako Gobernuak. Horren adibide dugu ALICEM aplikazioa. Aurtengo maiatzaren 13an, Edouard Philippe lehen ministroak dekretu bidez, hots, parlamentuko eztabaida politiko eta filosofikoak saihestuz harturiko urrats berria.

AURPEGI EZAGUPENA OROKORTUZ

Zer da ALICEM? Aurpegi ezagupen orokortuari atea irekitzen dion aplikazioa. Nola funtzionatuko du? Txip biometrikodun nortasun agiria daukanak bere smartphone mobilean aplikazioa telekargatu eta kontu pertsonal bat sortuko du. Smartphonarekin pasaporteko txipa irakurri eta datuak pasako ditu, ondotik, aurpegia alde guztietara mugituz bideo bat grabatuz. Nortasuna baieztaturik, identitate numeriko edo digitala sortuko dio Ministerioak. Horri esker, mobilari begira jarri eta ezer gehiago egin gabe kontua irekitzeko gisan. Zertarako izanen da? Zerbitzu publikoetara sartzeko bidea izanen da. Osasun Asegurantzaren Kutxa, gidabaimena kudeatzeko gunea, zergen espazioa… orotara 500 bat zerbitzu publiko. Nahi edo ez, herritarrentzako beharrezkoak diren elementuak beraz. Oraingoz, ohiko bidetik sartzen ahalko da zerbitzuetara, baina bide berri hau ere egonen da nahi duenarentzat.

Horren ilegaltasunaz eta arriskuaz ohartarazten dabiltza noski, norberaren askatasunari loturiko egiturak, baita CNIL Informazioa eta Askatasunen Komisio Nazionala gisakoak ere. Hain zuzen, datu baseei buruzko arautegiari segi, datu biometrikoen bilketak norberaren oniritzia izan behar duelako. Ordea, ALICEMekin aurpegi ezagupena behartua izateaz gain, aplikazioa erabiltzeko beste sarbiderik ez dauka erabiltzaileak. Eta zer eginen dute informazio hauekin? Noren esku izanen dira bihar eta zertarako erabiliak? Herritarra lasaitu nahian dabil Frantziako Gobernua, baina azkenean geroak soilik argituko dizkigu galderen erantzunak. Kontrolatzaileak kontrolatuari egia osoa kontatzen dion jakitea neke delako.

Baina berdin du, CNILaren oharrari elkor, urte bukaerako orokortzekoa du aplikazioa. La Quadrature du Net-ek errekurtsoa pausatu du Estatu Kontseiluan. Anonimotasunaren bukaeraren eta pertsonen identifikazio orokortuaren oharpena ez da elkartearen fabulazio bat. Gobernuaren gogoeta ofizialetan kausi ditzazkegu errazki frogak. *Numerikoari loturiko mehatxua, 2019 urtean* deitu txostenean ondokoa irakur daiteke: "Askatasuna, horra hor interneten paradoxa guztia. Eduki herratsuak zabaltzeko eta izaera ezberdinetako edukiak hedatzeko erabili kontu faltsuak biderkatzen dabiltzan guztiak babesten ditu anonimotasunak. (...) Horregatik dugu nortasun numerikoaren erronka gainditu behar, 2020tik aitzina frantses orok bere nortasuna frogatu ahal izan dezan eta jakin dezagun benetan zeini dagokion".

Mehatxua alimalea omen da: "Abiadura bizian zabalduz doan eraldaketa numerikoa bizi du gure jendarteak. Horri loturiko arriskuak ez dira gehiago aldian aldikoak; ez, sistemikoak ditugu: enpresak, lurralde elkargoak zein herritarrak eta hauen datu pertsonalak dira hunkiak", Christophe Castaner Frantziako Barne ministroak dionaz.

KONTROLA KALEETARA ZABALDUZ
KALEAN DAGOEN ANONIMOTASUNAREKIN BUKATU ETA HERRITARRAK FITXATZEKO HELBURU ARGIA DU FRANTZIAKO GOBERNUAK.

"Arriskua", "ziberkriminalitatea", "eduki herratsuak"... beldurra hedatzeko hautu argia egina du Frantziako Gobernuak. Ziberkriminalitatea *versus* teknologia inteligenteak. Hitzen hautaketa ere ez da hutsala: adimendua ala krimena?

KONTROLA KALEETARA ZABALDUZ

Baina kontua da numerikoan dagoen anonimotasun hori karrikan ere badela, eta hori ezin dutela gehiago jasan. Zenbat anonimok du azken urte honetan jaka hori bat soinean? Krisi klimatikoari begira neurriak hartzea exijitzen hasiak diren zenbat jaka berdedun izango dira bihar? Eta zerbitzu publikoaren desagerpenaren kontra etzi mobilizatuko diren zenbat anonimo ukanen ditu Gobernuak? Hori guztia badaki eta plaza publikoaren erabateko kontrola jarri du helburutzat.

"1999ko Seattleko Mundu mailako Merkataritza Erakundearen gailurrean agertu eta 2001eko Genovako G8aren gailurrean baieztaturiko mugimendu ihardukitzaileen erradikalizazio baten aitzinean gara. (...) Geroztik nazioarteko elkarretaratze guztiak dira bortizkeriz josiak. Gure indar guztien mobilizazioa eta nazioarteko kooperazioa ezinbesteko ukan ditugu Miarritzeko G7 gailurra ongi eta arrakasta diplomatikoz iragan ahal izateko". Barne ministroaren hitzak dira, *Milipol* barne segurtasunaren saloinaren estreinaldian plazaraturikoak. *Reporterre* komunikabidea egon zen bertan, irudikatzea ere nekeza zaizkigun tresneria guztien aurkezpenean. "*Nous avons visité 'Milipol', le salon de la répression*" ("*Milipol* bisitatu dugu, errepresioaren saloina") artikuluan ederki deskribaturiko errealitate beldurgarria sudur puntan dugula dirudi. Hala ere, Frantziako legediaren hertsitasuna deitoratu zion industria horretako ordezkari bat baino gehiagok *Reporterre*-ri. Nahi bezainbat ezin dute egin eta legedia malgutzea espero dute: inteligente adjektiboarekin kalifikaturiko kontrol sozial hori "geroa delako". Funtsean, 2024eko Parisko Joko Olinpikoetan aurpegi ezagupena martxan jarriko duela jakinarazi du Gobernuak.

Anartean, badabiltza aitzina, diskretuki, kontrolak esperimentatuz, usu Herriko Etxe batekin adostu hitzarmen baten bidez. Adibidez, aurtengo otsailean entseatu zuten kaleetan jarritako kamaren bidezko aurpegi ezagupena Niza hiriko ihauterietan zehar. Confidentia enpresaren esku den *Anyvision* programa israeldarra erabili zuten. Kamaraz kontrolatzeko 1.000 boluntario espero eta 5.000 ukan zituzten. ●

Miren Alcedo

BESTEEN MUNDUEI SO

“GIZARTEA BEZALAKOA DA JUSTIZIA, KLASISTA, ARRAZISTA, ETA EMAKUMEOK BAKARRIK GAUDE”

Antropologia ikasteak aldatu egin zuen Miren Alcedo: “Bat-batean, nire bizitza osoa irauli zen. Antropologian ikasten duzu nolakoak diren besteak, orduan, zure burutik atera behar duzu, eta beste aukera batzuk ikusi”. Azken hamabost urtean, bestelako lanetan dabil, epaitegi batean behargin, baina han ere topatu ditu munduak, eta ez bakarrik mostradorearen beste aldean: “Zure aldamenean dagoena ere beste mundu bat da”.

DANELE SARRIUGARTE MOCHALES DANI BLANCO

ETAri buruzko tesia egin zenuen.

Nire asmoa zen heriotza ikertzea. Orokorrean ikertu nahi nuen gaia, William Douglass irakurri nuen, *Muerte en Murélaga*, eta hortik jarraitu nahi nuen, baina gaur egungo hiriak aztertuz, ikuspegi modernoagoa emanez. Bartzelonan ikasi nuen, eta irakasle batek esan zidan zehaztu behar nuela gehiago, eta Euskal Herrian gainera bazela heriotza mota berezi bat, heriotza politikoa. Oso erraza da hori esatea, are gehiago kanpokoa izanda –irakasle hori austriarra da–, baina ni oso gaztea nintzenez, ausartu nintzen.

Erakundeko militanteak elkarrizketatu zenituen.

Garai hartan ez zegoen ezer eginda, gero bai, kazetariak hasi ziren liburuak idazten, baina momentu horretan Joseba Zulaikaren lana baino ez zegoen. 1990ean hasi nintzen nire ikerketarekin, eta berak 1991n argitaratu zuen *Violencia vasca: Metáfora y sacramento*. Liburu horretan, berak oinarriak azaldu nahi zituen, eta horretarako, Itziarko bere kuadrillaren esperientziak baliatu zituen. Nireak zabalagoa izan nahi zuen. Tira, gauza bat da zuk zer proposatzen diozun zure buruari eta beste gauza bat da zer betetzen duzun…

Nondik abiatu zinen?

Bazegoen tipo bat, Goñi, Portugaleteko apaiz bat, apaiz langilea, gero sekularizatu zena. Hasieran berarekin egin nuen kontaktua, eta esan zidan, etakide guztiekin egon behar nuela, guzti-guzti-guztiekin, eta nik “ai ama!” pentsatu nuen, ezinezkoa zen, horretarako talde bat behar duzu. Beraz, mugatuagoa izan zen. Gainera, militante batzuek ez zuten nirekin egon nahi, eta jakinarazi zidaten. Elkarrizketatu nituen guztiak ziren ETAko militanteak, baina momentu horretan jada ez zeuden taldeetan, ez zeuden ekintzak egiten, batzuk kartzelatik ate-

Miren Alcedo

PORTUGALETE, 1963

Historia ikasi zuen Deustun, eta Antropologia Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Azken alor horretan egin zuen tesia, *La cultura de la muerte en Bizkaia y Gipuzkoa*, eta hortik abiatuta argitaratu zuen *Militar en ETA* liburua (Haranburu, 1996). 2007an beste ikerketa bat argitaratu zuen, *La identidad pactada: primer proceso estatutario y Concierto Económico 1981*, EAEko itun ekonomikoaren inguruan. 2005az geroztik, epaitegietako langilea da.

ra berritan zeuden, beste batzuk gero sartu ziren... Esan nahi dut ni ez nintzela arriskuan egon eta ez nuela inor arriskuan jarri. Oso irekiak izan ziren nirekin, denari buruz hitz egiten zuten. Haien esperientziak oso gogorrak ziren, batez ere kartzelaren memoria azaldu zuten, tortura...

Ikerketak, bere garaian, interes bizia piztu zuen, baina ez zenuen gaian sakontzen segitu.
Interes handia egon zen, Mexikotik adibidez elkarrizketak eskatu zizkidaten, Estatu Batuetatik ere hots egin zidaten, Columbia unibertsitatetik, hitzaldi bat emateko, eta Euskal Herrian, unibertsitateko irakasle batek militanteen testigantzak eskatu zizkidan; esan zidan "zuk igual ez dakizu ondo interpretatzen eta nik irakurri behar ditut...". Ezetz esan nuen. Liburu bat egin nuen tesiarekin, eta kito, hor zegoen, ni horraino ailegatu nintzen eta ez nuen jarraitu.Tesia egitean eta etakideak elkarrizketatzean sufrimendu handia ikusi nuen, sufrimendu asko eta handiak, eta lotsa ematen zidan bide horretatik jarraitzeak, batez ere dirua edo bizimodua ateratzeko.

Beste gai batzuei heldu nahi zenien, beraz.
Bai, aldaketa behar nuen. Gai asko etorri zitzaizkidan burura, jubilatuen gaia adibidez, baina ez nuen dirulaguntzarik lortu. Gero, justu garai hartan Guggenheim museoa egiten ari ziren, eta nik ikusten nuen aldaketa bat etorriko zela, zeren Bilbok, Bilbo Handiak, industriatik turismora pasatu nahi zuen, garai horretan oraindik zen hiri grisa, industriala, pobretzen ari zena... Nik lan bat egin nahi nuen horretaz, niretzat oso interesantea zen. Dirulaguntza eskatu nion Eusko Jaurlaritzari eta joan nintzen epaimahai batera nire ikerketaren egitasmoa babestera. Han zegoen Sevillako katedradun bat, Isidoro Moreno, eta hark galdetu zidan: "Baina zuk zer pentsatzen duzu, hona masa turismoa etorriko dela?".

Bada etorri da, etorri denez.
Bai, nik pentsatzen nuena baino gehiago, gainera. Edonola ere, dirulaguntza ukatu zidatenean, nire buruari galdetu nion: zergatik eman zidaten ETA erakundea ikertzeko dirulaguntza? Badago ikertzaile bat, Ruth Benedict antropologoa, eta berak ikertu

zuen nolakoa zen kolonia japoniarra Ameriketako Estatu Batuetan (AEB), ikusteko ea zer ohitura zeuzkaten eta abar. Horren harira, *El crisantemo y la espada* liburua idatzi zuen, eta AEBetako gobernuak liburu hori erabili zuen Bigarren Mundu Gerran, etsaia ezagutzeko. Dirulaguntza ukatu zidatenean, nahiz eta baneukan curriculum bat, ibilbide bat, pentsatu nuen nire *Militar en ETA* izan zela *El crisantemo y la espada* bezalakoa Euskal Herrian. Ezagutu nahi zuten nolakoak ziren ETAko militanteak eta pentsatu zuten nire ikerketa erabilgarria zela. Erabili zuten eta erabili ninduten.

Hara... Damutu zara inoiz?
Ez, ez, inolaz ere. Begirunez egin nuen, eta gainera, ez nuen jarraitu. Niretzat oso esperientzia aberasgarria izan zen.

Faltan sumatzen duzu ikerketak egitea?
Bai, jakina, batez ere epaitegian lan egin behar duzulako.

Oso lan ezberdinak dira, ezta?
Ez dauka zerikusirik. Lan arrunta da eta gogorra, egoera gogorrak ikusten dituzu epaitegian.

PORTUGALETETIK AZPEITIRA

Portugaletekoa da Alcedo, baina Azpeitian bizi da azken hamabost urtean. “Bizkaitik ailegatu nintzen Azpeitira, eta niretzat Emakumeen Txokoa izan zen harrera leku bat. Oso ikastaro interesgarriak egiten dira bertan, niri asko gustatzen zait, gainera sare bat egin da herriko emakumeen artean, eta erreferentziak dauzkazu. Oso emakume interesanteak daude Azpeitian. Zu ailegatzen zara eta, hiri batetik etorrita, topikoak datozkizu burura, baina konturatzen zara zure hiria erdi hilda dagoela eta Azpeitia, herrixka, oso bizirik...”.

Nolatan sartu zinen horretan?
Alaba neukan, eta ez neukan lan finkorik, eta nahi nuen lasaitasunez bizi... Hori izan zen.

Eta, hasi aurretik, ba al zenuen irudipen zehatzik edo iritzirik han egingo zenuen lanaz?
Ez, ez nekien ezer. Bulego batean errutinazko lana egitea infernua iruditzen zitzaidan. Pentsa, nire aldamenekoek nahi zuten liburutegietan lan egin, eta nik pentsatzen nuen hori heriotza izango zela; orain, aldiz, iruditzen zait kristoren zortea dela. Nik beste oposaketa bat prestatu nuen, etnografo, Bizkaiko Aldundian lan egiteko, eta gainditu nuen, baina lanposturik gabe. Beste oposaketa bat egitea erabaki nuen. Justiziako oposaketek oso ospe ona zeukaten, oso zailak zirelako, eta gainera gaizki ordainduta zegoelako lana, eta orduan pentsatu nuen hura zela nire aukera [barreak]. Gainditu nuen, baina ez neukan harreman berezirik arloarekin, ez nekien zer zen. Bulegoko lana, lankideekin, saltsa horrek erakartzen ninduen, hori bai. Erdi idealizatuta neukan. Ordura arte beti egin nuen lan bakarka, eta nire irudipen hori gustatzen zitzaidan. Baina gero ez da horrela.

> *“Ilusiorik gabeko garaian bizi gara, medioetatik boteretsuek esaten digute ezin dugula ezer egin”*

Nola da?
Hasieran instrukzioan aritu nintzen, emakumearen aurkako bortizkeriaren epaitegi batean lan egiten nuen, eta terriblea zen. Terriblea. Pentsatzen nuen banekiela zer zen tratu txarrak pairatzea, eta ez nekien, konturatu nintzen ez nekiela. Deklarazioetan egotea, etengabeko tortura entzutea... Okerrena zen sistemak ezin zuela ezer egin emakume horiek babesteko, ezin zuela edo ez zuela egiten. Eta gaur egun ere...

Gaur egun badaude lege batzuk, baina...
Orain badaude pultserak eta halako gauzak, baina...

Emakumeen askatasuna mugatzen dute?
Pultserak normalean tipoek eramaten dituzte, baina batzuetan kentzen dituzte. Eta emakumeak oso bakarrik daude. Bakarrik zeuden eta bakarrik daude.

Justiziaren aurrean?
Orokorrean, gizartean. Justizia da gizartearen sintoma, ez da ezberdina, gizartea den moduan, halakoa da justizia.

Azalduko zenidake nola antolatzen diren epaitegiak EAEn? Zenbat arlo dauden, zer kudeatzen den horietako bakoitzean...
Batetik, arlo penala dago, delituak ikusten dira hor: hasieran, instrukzioko atalean, delituak ikertzen dira, eta epaiketarako prest baldin badaude penalean ikusten dira; badago helduena eta adin txikikoena. Gero badago arlo zibila: ga-

tazkak aztertzen dira, baina batez ere diruarengatik, edo auzokide batek balkoia zegoen lekuan miradore bat jarri duelako edo herentzia batengatik liskarrak badaude, halako gauzak. Ondoren, administrazioarekiko auzien arloa dago, eta azkenik, lan-arloko epaitegietan ikusten dira kaleratzeak eta halako gauzak.

Bere garaian liberatuta egon zinen LABeko sindikalista moduan.

Bizitzan, nik behintzat, oso espektatiba handiak dauzkat, eta gero errealitatea iristen da eta dena jaisten du. Konturatu nintzen oso zaila zela gauzak aldatzea, eta langileok ez dugu pentsatzen aldaketak posible direnik.

Ez dugu aldaketan sinesten?

Sindikalista hasi nintzenean, justu krisialdia hasi zen, edo, hobe esanda, sistema ekonomikoa aldatzen hasi zen, eta bat-batean mahai gainean zegoen pentsioen asuntoa, soldatak jaitsi ziren, hitzarmenak aldatu ziren hainbat arlotan… Lanean hori azaltzen nuenean, jendeak esaten zidan hori gertatzen zela eremu pribatuan, eta eremu publikoan, administrazioan, gauzak ezberdinak zirela eta guri ez zitzaigula tokatuko. Baina gero pribatizazioa justizian ere sartu zen. Gainera, guk justizian egiten dugu lan eta ikusten dugu nolakoa den. Gizartea bezalakoa, igual-iguala: klasista, arrazista, matxista… Emakumeok galtzeko dena daukagu, oso misoginoa delako. Oso homofoboa ere bada. Justizia arloa gizartea bezalakoa da, ez da zerbait berezia. Justizia administrazioan lan egiten baduzu, munduan duzun konfiantza desagertu egiten da, jendearengan duzun konfiantza ere kolokan jartzen da.

Krisi ekonomikoa esan zaionak eragin nabarmena izan du justiziaren arloan ere, ezta?

Krisia… Ez da krisia, da beste antolakuntza ekonomiko bat; probatzen ari dira ea noraino onartzen dugun. Orain arte, dena onartu dugu. Baina bai, asko eragin du justizian ere. Bat-batean dibortzio-demandak ez ziren sartzen, jendeak ez zeukan dibortziatzeko dirurik. Nik ez dakit nola moldatuko ziren, baina epaitegian askoz gutxiago azaltzen ziren.

Gogoan dut Gipuzkoako epaitegietako garbitzaileek greba luze bat egin zutela, soldata arrakala salatzeko.

Justiziako langileen artean ahulenak dira garbitzaileak eta segurtasuneko langileak. Soldata baxuena haiek daukate, lan-baldintzak orokorrean txarrak dira: oso oporraldi motza, ordezkapenak egiteko beti arazoak dauzkate… Bi kolektibo kaltetuenak dira.

Esan duzu langileek ez dutela sinesten gauzak aldatu daitezkeenik. Zuk?

Egia esan, zaila da. Ilusiorik gabeko garaian bizi gara, medioetatik boteretsuek esaten digute ezin dugula ezer egin. Zigorraren eta beldurraren mezua hedatu da. Askatasuna murriztu nahi digute. Dena den, jende konprometitua badago. Azken bolada honetan gauzak mugitzen ari dira emakumeen mugimenduan, pentsiodunen artean… Huerta de Peraltako lan gatazkan ikusi genuen zer lor dezakeen elkartasunak. Zaila da gauzak aldatzea, baina ezin dugu ahaztu gu, langileok, asko garela, gehiengoa garela. Gure artean elkartasuna eta konfiantza landu behar dugu, eta horrela posible da. ●

Espainia barruan, ezin

KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Zer dela eta lagundu behar dugu euskaldunok eta katalanek Espainian "gobernu progresista" bat osa dezaten? Gobernu espainiarra (edozein koloretakoa) osatzen laguntzen duenak Espainiako Estatua osatzen laguntzen du. Ez dago gauza kaltegarriagorik Kataluniarentzat edota Euskal Herriarentzat Espainia osatua baino. Espainia Francorekin, haren aurretik eta haren ondoren, euskaldunon eta katalanen aurkako proiektua delako. Ez dago Espainia barruan estatu plurinazionalik eraikitzerik, Espainia bera delako beste nazioen ukazioan oinarritzen den ultranazioa. Hori ez dute sekula negoziatuko, hori inposatu egiten dute beti.

"Euri gortina batek ixten du gure kalendarioa", zioen Joxe Azurmendik. Euriak ez digu uzten, nonbait, paisaia erreala ikusten. Itsutu egiten gara, gortina horren atzetik zer ote dagoen asmatu ezinik.

Euskaldunok geure historia luzean eta geure azken esperientziatik ikasi ez badugu, nahikoa dugu Katalunia aldera begiratzea, une honetan ere Espainia zer den eta nola jokatzen duen ikusteko, eta hortik zer espero daitekeen konturatzeko. Adibide baterako, hauxe: azken denboretan bizi izandako guztiaren ondoren, horrek guztiak utzi dituen hondarrak neurtu nahian, azterketa zabala egin berri du estatu osoan *Centre d'Estudis d'Opinió* erakundeak, eta emaitzak guztiz esanguratsuak dira: Andaluzian, Madrilen, Extremaduran, Kantabrian edo Asturiasen... guztiz zuzen eta egoki ikusten dute politikari katalanen kartzelaratzea; ez dute Katalunian erreferendumik onartzen, Espainia nazio bakarra eta banaezina delako, eta abar. Beraz, Madrilen gobernuan legokeen balizko "progresista" batek horrela nahiko balu ere –eta berau hipotesi fiktizioa da–, ezingo luke planteatu ere egin. Espainian mendeetan sortu duten oinarri, substratu eta muin ideologikoa hor agertu den hori delako. Hori ukitzen baduzu, akabo Espainia bera.

> Katalunian zein Euskal Herrian, independentzia ez da kapritxoa. Nortasun propioa dugun nazio moduan existitzeko ezinbesteko baldintza da. Izan ala ez izan

Katalunian zein Euskal Herrian, independentzia ez da kapritxoa. Nortasun propioa dugun nazio moduan existitzeko ezinbesteko baldintza da. Izan ala ez izan. Beti egin zait harrigarria gure arteko batzuek "Espainia barruan eroso bizi" aukera adieraztea. Ezinezkoa baita. Benetan euskaldun sentitzen den inork esan dezake gaur egun eta hemen "ni espainola naiz" eta eroso sentitu? Hasteko, euskaldunak eta katalanak "espainola naiz" esatera behartu egiten gaituzte egunero, hitzez eta idatziz, guk nahi ala ez. Izango da, bai, erosotasun mota baten truke nortasuna saltzeko prest dagoenik, eta ez dut adibiderik jarri behar.

Izango da gurean fede oneko euskaldun zintzorik pentsatzen duenik *estatus berria* adostu daitekeela berton, gure artean, eta gero Madrilera joan, hori indartsu negoziatzera. Baina bistakoa da esperantza horrek zenbat irauten duen hemen: Madriletik "balizko gobernu progresistak" buruzagi jeltzaleengana keinu bat luzatzen duen unean, akabo estatus berrirako aliantza.

Zer, orduan? Subiranisten aliantzak bai, Katalunian zein Euskal Herrian, baina independentziara daraman bidea ondo diseinatuta. Euskal errepublikaren diseinu demokratikoa, integratzailea eta aglutinantea, modernoa eta ez-baztertzailea behar dugu. Bai, baina euskal errepublikarena, gero. Independentea, estatu propioan eratua. Bestela, ipuinetan ari gara. Ezin baita irudikatu Euskal Errepublika, Monarkia parlamentario espainiar horren barruan, ene ustez. Has gaitezen, bada, Monarkia horren gobernuak lagundu ordez, gure Errepublikarako bide zehatzak zabaltzen. Bada garaia. ●

Ez nazazu jarraiki

PAULA ESTEVÉZ

BEA SALABERRI
IRAKASLEA

Altxa sudurra hortik", dio bizilagunak mugikorrari begira nagoenean. Arrazoiekin. Halarik ere, segitzen dut berdin, sare batetik besterainoko joan-jinean. "Noiz gertatu zen Facebooken iragan zenuen azken momentu ona? Denbora lerroa arakatuz pozik sentitu zaren azken unea? Instagrama irekitzean plazer hartu duzun azken aldia? Twitterek plazera ematen dizu lehen bezainbat?".

Aitortu beharko dugu ez dela lehengokoa. Gu, plurala, erabiliko dut, enfasiarengatik baino, segur bainaiz ez naizela bakarra hauxe sentitzen duena. Sareen zale anitz gaude eta gutxiri entzuten diot aipatzen sare sozialek azken boladan sortzen diguten asperdura eta kezka gure buruez: kideok, dopamina tasak behera ditugu.

Sareak, ezagutzen ditugun formatuan, bukaerarantz omen doaz. Duela zenbait hilabete iragarri zen sozial-mediaren amaieraren hasiera; hainbat haustura puntura helduak dira, dirua irabazirik ere ez omen dira hain erakargarri, sareak publizitate agentzien eremu bihurtu dira. Omen, etorkizunean komunikazioa sare pribatuetara lerratuko da, hots, bizi pribatuaren plataformetara. Ageriko.

Maite ditut, aspalditik eta pasioz, sare sozialak, bultzatzen dituzten baloreengatik, sozialarengatik, argira ematen dituzten mugimenduengatik. Beharrezkoa da begi batez berriak segitzea, besteek diotena, interesatzen dituena: gure jakitateen elikatzeko erraztatzailea da. Ontsa irri egin izan dugu, anitz ikasi dugu, gustukoei edo interesekoei buruz, informazio iturri agortezinak deskubritu ditugu, trukatu dugu, milaka gai eri puntutaraino heldu zaizkigu, baina orain? Behin *like*, biharamunean bota, ardura paira.

Izan ere, orenak iragan daitezke lerroetan gainbeheraka, publizitate artetik, errezeta arraroen aitzinean, txiste txarrak irakurtzen. Harrabots anitz. *Troll* gehiegi. Auzi lasterregiak. Bide batez, eta paradoxikoki, arrandia kutsu horrek ez ote gaitu sentiarazten noizbehinka bikainak baiki, baina maiz garena baino itsusiago, pobreago eta bakarrago ere? Hain zuzen goaitatzen dugunaren kontrakoa. Zer egin? Kide batzuk "isildu"? Batzuengandik bereizi? Ez da hain sinplea.

Ez dut erranen hobeki zela lehenago, alta, batzuetan nago ea zerk akuilatzen nauen Facebook ala Twitter irekitzera mekanikoki. Azken hilabeteetan erreflexu bihurtu da, zinezko behar edo plazera baino. Aitortzen dut zerbait huts egitearen beldurrez naizela nolabait.

Zorionez ez da beti hala. Zenbaitetan hurbilekoen edo ezagunen bizi zati bat kausitzen baitugu, gogoeta bat, anekdota bat. Alde humanoa eskertzen da beti, ekoizpen, iritzi eta bizipen pertsonalak (katu argazkiak ez). Haatik denbora lerro gero eta erdipurdikoaren argira ez dakit jakintsuago izateko bide hobeagorik ez nukeenez atzeman behar. Praktikek bultzatzen ez bagaituzte, denbora pasa hutsa bihurtzen baitira.

Ontsa oroitzen banaiz, gehien maite genuena zen blogetan ibiltzea, jendeekin jardutea, iritziak partekatzea, saltsan ibiltzea. Horrela ditut ezagutza berriak egin eta anitz ikasi, nahiz eta ez dena beti arrosa kolorekoa izan, komunitatea ginen, inportantzia gehiago ematen genion edukiari, eduki-ontziari baino.

Blogetara, edo lehengo hartara, itzultzeko gogoa eman dit, jarioen jarraipenera, han jardun ahal izateko, luze eta zabal. Eta horrela, gero, denei zabaltzeko ahalko nizkizueke *post*-ak, sare sozialen bidez, bistan dena (kontraesanen bat gorabehera). ●

Nabigatzaileentzat abisua

AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

Azkenaldi honetan askotxo hitz egiten ari da ziber-delituen inguruan. EAEn egunero hogeita bost ziber-delitu burutzen omen dira, Ertzaintzaren arabera. Alarma soziala piztu delakoan, Iñigo Urkulu lehendakariak ziber-segurtasuna etorkizuneko erronka dela aldarrikatu du.

Euskal enpresak buru belarri ari dira kontraespioitza arlorako babesak bilatzen eta erakunde publikoek neurriak hartu dituzte ustezko ziber-erasoak ekiditeko. Datuen etekin ekonomikoaz eta informazioaren boterearen indarraz oharturik, "aditu" batzuek pauso bat aurrera egin dute.

Ertzaintzaren buruzagi ohi eta Espainiako militar ohi batzuek Ziber-segurtasun Euskal Zentroarekin harremanak dituen kontraespioitza enpresa sarea sortu dute. Militar ohi horiek operazio berezietako eta inteligentzia arloko unitateetatik datoz. Ertzaintzaren buruzagi ohiek Eusko Jaurlaritzaren segurtasun instituzionalean eta informatikoan lan egin dute. Buruzagi ohi batek De Miguel auziarekin du harremana eta beste buruzagi ohi batek Hiriko kasuarengatik zigortua izan zen enpresari baten sozioarekin harremanak ditu.

Konferentziak eta ikastaroak eskaintzen dituzte eta horrelakoetan parte hartzen dute Ertzaintzaren Segurtasun Pribatuko Unitateko eta Ertzaintzaren Inteligentzia Bulego Nagusiko arduradunek. Kontraespioitza enpresa sare horrek EAEko erakunde publikoekin kontratu batzuk lortu ditu, Osakidetzarekin eta Ertzaintzarekin kasurako.

Sareak euskal milioidun batzuen finantzaketa jaso zuen. Aberats izugarri horiek Eusko Jaurlaritzaren kargu ohi batzuekin harreman zuzena dute. Ziber-segurtasunari lotutako enpresa sare horrek kontraespioitza lanak burutu zituen atzerrian interesak dituzten euskal enpresarientzat.

Sare horrek segurtasun indarretako kide ohiak fitxatu ditu, Ibex 35 eta Fortune-500eko enpresentzat lan egiteko, baita atzerriko beste bezero batzuentzat ere. Bezero batzuk De Miguel auziari lotutako enpresak dira, burukide ohi baten aholkularitza enpresa talde bat hain zuzen ere. Euskadiko apustu etxeen segurtasunaz ere arduratu dira.

Sare horretan dronekin lotura duen enpresa bat ere agertzen da, Mossos d'Esquadrako bi buruzagi ohirekin harremanak dituena. Estatuko segurtasun indarrek enpresa horren droneak erabiltzen dituzte polizia-jazarpenetarako eta manifestazioak kontrolatzeko.

Pribilegiatu gutxi batzuren alde eta ezjakin askoren kontra, Euskal Herriko Anaia Handia martxan dago jada. ●

Durangoko Azokaz

CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Behin entzun nion Harkaitz Canori badela jendea Durangoko Azokan besterik existitzen ez dena. Eta jende horregatik joaten naiz ni urtero, hain zuzen ere. Badakit nor non aurkitu. Badakit zertaz hitz egingo dugun. Urtetik urtera elkarrizketei heltzen diegu denbora pasatu izan ez balitz bezala. Bizitzaz, maitasunaz eta poesiaz hitz egiten dugu maiz, gauza bera eta bakarra balira bezala. Ez dut libururik erosten apenas, gauza arraroen bat gehienez ere. Diskoak bai, Spotifyn dena badago ere, gustatzen zaidalako esku artean izatea letren liburuxka. Ez naiz erostera joaten. Egitarauari ere ez diot gehiegi erreparatzen. Heterodoxoa naiz honetan ere. Ez nau gehiegi ardura jende gehiago edo gutxiago dagoen, zer saltzen den eta zer ez, nor dagoen sinatzen eta nor ligatzen. Kulturaz enpo bizi naiz urte osoan zehar. Hamabi hilabetez joaten naiz euskarazko antzerki lanak ikustera. Euskal poeten liburu guztiak irakurri ditut, bi aldiz onak badira eta behin txarrak badira. Durangoko Azokara joatea maite dut *saraoa* den aldetik. Lagunen arteko hitzordu bilduma bat. ●

Euskararen zonifikazioa EAEko hezkuntzan

MIKEL BASABE KORTABARRIA
IRAKASLEA

Eusko Legebiltzarrak legez ezarri du, Jaurlaritzaren proposamenez, euskararen zonifikazioa EAEko hezkuntzan. Hauxe dio 4/2018 legearen 27. artikuluak:

"3. Hizkuntza-plangintza orokorrarekin koordinatuta egingo da lanbide-heziketako hizkuntza-plangintza, eta, haren barruan, euskarazko lanbide-heziketa bermatuko da, kontuan hartuta, lehentasunez, honako hauek: zer-nolako eskaera eta errealitate linguistikoa dagoen dena delako ikastetxearen inguruko hezkuntza-etapa bakoitzean, zein den eremu horretako egoera linguistikoa eta, zehazki, zein diren ikastetxe horretan eskaintzen den lanbide-heziketaren berezitasunak eta helburuak".

Hirugarren atala da goiko hori. 2. atalean, Jaurlaritzak konpromisoa hartzen du "planifikazio bati jarraituta" D eredua zabaltzeko eta B eredua ezartzeko. 2018an! Ez zuten ba ereduak gainditukо dituen hezkuntza-legea agindu 2019rako? (Bide batez: eskerrak oraingoan ere sailburuak horretan kale egin duen).

> Gauzak are gehiago okertzeko, Hezkuntza Saila B eredua ari da bultzatzen lanbide-heziketan. Baita goi-mailakoan ere. Gogoratu goi-mailako zikloetako plazen %60 batxilergoa amaitutakoei gordetzen zaizkiela

Asmo onak alde batera, gauza jakina da D ereduak atzera egin duela EAEko lanbide-heziketan. Hona hemen matrikula-datu ofizialak:

Erdi mailako LHn (DBHko ikasketak amaitutakoan egin ohi dena), ikasleen %22,79 D ereduan 2013-14 ikasturtean; ikasleen % 20,76 2018-19an.

Batxilergoa edo erdi-mailako zikloa amaitutakoan egin ohi den goi-mailako LHn, D ereduan zegoen ikasleen % 26,31 2013-14an; % 23,86 iaz.

Denbora-tarte berean, batxilergoko D ereduko ikasleen ehunekoa sei puntuan hazi da; DBHkoena zortzian. Sinetsi behar dugu ikasleei mantendu egiten zaiela eredua institututik lanbide heziketara igarotzen direnean?

Gauzak are gehiago okertzeko, Hezkuntza Saila B eredua ari da bultzatzen lanbide-heziketan. Baita goi-mailakoan ere. Gogoratu goi-mailako zikloetako plazen %60 batxilergoa amaitutakoei gordetzen zaizkiela. Benetan sinetsi behar dugu batxilergoko D ereduko ikasleak %63 izanik, eta goi-mailako zikloetakoak %26 baino ez, ikasleei errespetatu egiten zaiela eredua aukeratzeko duten eskubidea? Benetan? Bada, nik ez dut sinisten. Zalantza egiten duenari, hauxe erronka: har dezala lanbide-heziketako zikloen zerrenda, hizkuntza-eredu eta guzti argitaratzen dena, eta begira dezala zein den euskarazko eskaintza, eta zein gaztelaniazkoa. Baina kasu! Ez ekainean matrikula egiteko orduan argitaratzen den eskaintza, baizik eta irailean benetan osatzen diren taldeena, aldea baitago. Euskaldunon kalterako aldea, jakina. ●

Bertako ekoizleekin konpromisoa

Hemengoak gara eta bertako produktuen kontsumoa sustatzen dugu

Hemengoa izatea ona da

EROSKI 50 URTE zurekin

www.eroski.es

EXARCHEIA AUZOA DESALOJO ARRISKUAN

Erresistentzia taupadak Atenasko bihotzean

Atenasko metropoliaren erdi-erdian den Exarcheia auzoak, inguratzen duenaren oso bestelako logikaz funtzionatzen du duela mende erditik. Autogestioa ardatz, eraikin okupatu ugari daude auzoan, zentro sozial zein etxebizitza funtzioa betetzen dutenak; azken urteotan harrera auzo bilakatuta, etxebizitzetako asko migratzaileei aterpea emateko okupatu dituzte. Horrez gain, osasun zentro autogestionatua eta beste hainbeste egitasmo eraldatzaile ere barne biltzen ditu auzoak. Jendarte antiautoritario, autogestionatu eta inklusibo bat posible denaren erakusle eta iragarle izateagatik mundu mailan erreferente bilakatu den auzoak, espero zitekeenez, etsaiak ere baditu ordea. Abuztu amaieraz geroztik dirau erresistentzian, Greziako Gobernuak berau desegitea baitu lehentasun. Egunez egun egoera gogortzen doan arren, auzoak tinko dirau erresistentzian.

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Demokrazioa Berria (ND, grezierazko laburdura) alderdi eskuindarrak uztailaren 7ko hauteskundeak irabaztearekin batera hedatu zen alarma-hotsa Atenasko bihotzetik: Exarcheia auzoa erasotua izateko arriskuan zegoen. Alexis Tsipras-en (Syriza) lekukoa hartu berri zuen Kyriakos Mitsotakis gobernuburuak hauteskunde kanpainatik ziharduen Exarcheiaren hustea eta Rouvikonas talde anarkistaren desegitea ahotan hartzen, eta gobernu berriak eratzetik egun gutxira iragarri zuen auzoari eraso egiteko plana prestu zuela. Esan eta egin: abuztuaren 26an Greziako Polizia indarrez sartu zen Exarcheian. Okupatutako lau eraikin hustu zituzten lehen oldarraldi horretan –Spirou Trikoupi 17, Tránsito, Rosa de Foc eta Gare–, ehundik gora bizilagun kaleratuz.

Ordutik poliziaren etengabeko oldarraldiak pairatzen ari dira auzoan, eta errepresioa tentsioa areagotzen joan da ezinbestean. Gaur artean, erasoaldi ezberdinetan, hainbat eraikin hustu, bizilagunen kontra indarkeria erabili, etxeak eta lokalak miatu, bilaketak eta operazio antiterroristak burutu, hainbat pertsona atxilotu eta militante bat gogorki jipoitu dute, besteak beste. Gobernuak Exarcheiako eraikin autogestionatu oro hustu eta mugimendu soziala desegin nahi du auzunearen gaineko kontrola bereganatzeko, baina halakorik gerta dadin eragozteko prest dagoen auzo oso bat du aurrez aurre, borrokan aski zaildua. Udaz geroztik, dela pintaketa, pankarta zein karteletan, No Pasarán! [gaztelerazko leloa, *Ez dira pasako* euskaraz] aldarria irakur daiteke auzoko izkina guztietan, auzokideek mobilizazioetan airatutako leloaren durundia betierekotuz.

EXARCHEIA, EZ-UTOPIA EREDUGARRIA

Exarcheiaren ezaugarriak dituen auzo bat imajinatzean, nekez kokatuko du batek hirigunearen erdian, are gutxiago klase ertain-altuko auzo baten ondoan. Kasu honetan ordea, hala da: Atenasko bihotzean, zonalde aberatsenetarikoa den Colonaki auzotik metro eskasera,

hortxe dago Exarcheia. 1970eko hamarkada arte auzo dirudunaren luzapen gisakoa zena, Koronelen Juntaren diktadura militarraren aurkako ikasleen erresistentzia tarteko, anarkismoarekin eta ezker erradikalarekin lerraturik joan da eraldatzen. Ikasleen borroka haren agertoki nagusia auzoan bertan dagoen Atenasko Unibertsitate Politeknikoa izanik, bai 1973ko Politeknikoko altxamenduak zein militarrek beronen kontra burututako sarraskiak ezinbestean eragin zuen auzoak egun duen identitatearen eraikuntzan. Identitate bat, esan beharrik ez da, aginteari kontrajartzen zaiona. 70eko hamarkadatik hona jazo diren hainbat gertakarik –auzoari eraso jarraituak, poliziak hildako kideak–, izaera erradikal horretan berretsi dute.

Egun, hogeitik gora eraikin okupatu daude auzoan, eta beste horrenbeste honen bueltan; gotorleku moduko bat autonomia laborategiarentzat. Okupatutako etxebizitzek, zentro sozial autogestionatuek, liburutegi eta kafetegi andanak, ADYE autogestionatutako osasun zentroak edota orain gutxi poliziak erretiratutako kiosko politikoa –elikagaiak, botikak zein irakurgaiak banatzen dituen kontainerrari hala deitzen zioten– bezalako egitasmoek kapitalaren bestelako logikez ehuntzen dute auzoa egunez egun. Ehun aski sendoa, Europar Batasunak eta kasu honetan Greziako Gobernuak bazter utzi duen errefuxiatuen kolektiboa bere baitan hartzeko. Exarcheiak, harrera auzo bilakatuta, mediterraneoaz bestaldetik etorritako milaka pertsonari ere zabaldu baitizkio ateak azken urteetan.

Beren zeharkaldian Grezian ez atzera ez aurrera geratutako hainbat migratzailek autogestioan aurkitu dute biziraupenerako giltza. Horiei bizitokia eskaintzeko, hainbat eraikin okupatu dituzte auzoan; eraikin horietako bakoitza autogestionatutako komunitate bilakatu da, eta komunitate bakoitza auzoko ehunduraren parte. Etxebizitzaz harago, bestelako zerbitzuak sozialak ere kudeatzen dituzte auzokideek, osasuna zein hezkuntza ez dakizkion falta inori. Hala, elkartasuna eta autogestioa ardatz, bal-

AZAROAK 17. Koronelen Juntaren diktadura militarraren aurka ikasleak altxa ziren 1973ko azaroaren 14an, eta azaroaren 17an militarrek sarraskia eragin zuten. Ordutik, mobilizazio jendetsua egin ohi da urtero egun horretan. Argazkian, aurtengo manifestazioa.

dintza geroz eta jasangaitzagoak dituzten errefuxiatuentzako akanpalekuen alternatiba duin ere bilakatu da Exarcheia. Husteak hasi aurretik auzoan zeuden okupatutako 23 eraikinetatik 12 migratzaileen etxebizitzak ziren.

Bizia bertan egiten dutenek, ordea, auzoa utopia izatetik urruti dagoela azpimarratzen dute. "Exarcheia munduko beste edozein toki bezalakoa da. Tokiok *berezi* egiten dituena borroka burkideak dira", dio ARGIArekin mintzatu den No Pasarán asanbladako kide Andreas-ek [bere anonimotasuna gordetzeko izen faltsua]. Alabaina, bizitza erdigunean jartzen duen bestelako jendarte bat posible dela iradokitzera emate hutsak, gobernuaren miran jarri ditu.

GOBERNUA "GARBIKETA" LANETAN

Auzokide anarkista batek [anonimoa] CrimethInc sareari eskainitako elkarrizketa batean adierazi zuenez, "NDk argi utzi du epe luzera begirako plana daukala, desagerrarazteko ez bakarrik Exarcheiako eraikin okupatuak, baita errefuxiatuak, migratzaileak, anarkistak, gazteak eta beste hainbat pertsona ere, auzoari mundu mailan ezagun egin duen izaera ematen diotenak. Helburua da Exarcheia definitu duen kultura suntsitzea". Bere hitzetan, planak luze joko du, eta ziurrenik Exarcheia Squareko metro geltokiaren eraikuntzarekin amaituko da. Guda ideologikoaz harago, Mitsotakisen gobernuak Exarcheian interesen ekonomikoak ere badituela ondoriozta daiteke. Andreasek argi du: "Mugimenduari eraso egiteak auzoaren gentrifikazioari ere egiten dio tokia".

John Malamatinas kazetariak *ROAR* aldizkarian argitaratutako erreportaje batean azaldu duenez, orain hamarkada bat antzeman zitekeen auzoa gentrifikazio prozesuan murgildurik zela. Alabaina, gobernuak pilatutako zor finantzarioaren ondorioz 2009an eztandarazitako krisialdi ekonomikoak blokatu egin zuen prozesu hori. Higiezinen sektorea zenbaki gorritan egotera pasatzearekin batera, okupazioek gora egin zuten auzoan; antolakuntza beharrei jarraiki lehenbizi, eta migratzaile olatuari tokia egiteko gerora. Gaur gaurkoz, badirudi gentrifikazio prozesua berriz martxan jarri dela. Malamatinasen hitzetan, kokapen geografiko zentralak auzoa erakargarri egiten du "herritar matxinoak mugiarazi" eta horien lekua "diru-sarrera altudun *yuppiak*" betetzea bilatzen dutenen begietara. Ildo horretan, CrimethInc -i mintzatu zaion kideak ohartarazten duenez, etsai ikusezina sartu zaie auzoan: Airbnb.

Hiri neoliberalarekin bat datorren moldeko auzoa eraikitzera bidean, egungo bizilagunak pentsamolde moderatuagoa eta diru sarrera altuagoak dituzten beste batzuengatik ordezkatzeko orduan, gobernuak argi izan du nondik hasi; zer "garbitu", bere hitzetan.

ND DIKTADURAREN NOSTALGIAK JOTA

Azken hauteskundeetako porrota eta urteetako borroka antifaxista medio, Egunsenti Urrekara alderdi neonazia desegite prozesuan da, eta 2015ean hasitako beronen aurkako makroepaiketa amaitzear; baliteke tarte gutxiren bueltan alderdia antolakunde kriminaltzat jotzea.

Faxismoa garaitzera bidean egindako aurrerapauso hori tarteko izanik ere, NDk eta poliziak egindako "garbiketa" hitzaren erabilerari darion kutsu faxista da gaitzak hor dirauela adieraztera datorren detaileetako bat. Hala ere, ñabardura bat egin beharra dago Atenasen bizi den Hibai Arbide kazetariaren arabera: "Egunsenti Urrekara ez zen eskuin muturreko alderdi bat soilik, antolakunde paramilitar neonazia baizik. Zentzu horretan oso garaipen garrantzitsua izan da haiekin amaitzea".

Hala ere, ohartarazi du: "NDk PP espainiarraren antzeko alderdi bat eman dezake, baina bere baitan eskuin muturreko elementu argiak ditu; eta horiek ez dira inoiz damutu, ez dute beren iragana ezkutatu, eta hor daude, presidenteorde dira [Adonis Georgiades-i erreferentzia eginez]". Eskuin muturreko LAOS alderditik NDra salto egin duen sektoreaz mintzo da, "diktaduraren nostalgikoek 80ko hamarkadan sortutako alderdia", bere hitzetan. Egungo gobernuak faxismoarekin duen lotura zein estua den ulertzera emanez, datu bat luzatu du: NDko diputatu Thanos Plevris eta Egunsenti Urrekarako buruzagi Nikos Michaloliakos elkarren ondoan aritutakoak dira diktadura ostean eratutako EPEN alderdi faxistan.

Datuok mahai gainean, ez da zaila ondorioztatzea Mitsotakisek zergatik jarri duen lehentasunen artean mugimendu anarkista eta ezkertiarra suntsitzea, eta ez makroepaiketan murgilduta dagoen Egunsenti Urrekara desegitea. Gobernuburuak etsai bat eta bakarra hartu izan du ahotan: "Bazterrak nahastu eta demokraziarentzat hain arriskutsua den desira iraultzailea hedatzen duten taldexkak". Mugimendu anarkista eta bereziki aski ezaguna den Rouvikonas taldea, alegia.

ERREFUXIATUAK ETA ROUVIKONAS, GOBERNUAREN TURKO-BURU

Yannis Youlountasek *alasbarricadas.org* atarian argitaratutako erreportaje batean dionez, antzeman daiteke "egoera matxinada eztandarazteko moduan dela munduko hainbat tokitan. Horregatik hartzen du jarrera gogorragoa botereak, horregatik behar ditu entretenituko duten turko-buruak". Mitsotakisen gobernuak aspaldi aukeratu zituen bereak, iritzi publikoaren arreta desbideratzeko: errefuxiatuak eta Rouvikonas talde anarkista.

Atenasko droga eta arma trafikoak Exarcheia dutela jatorri, hori izan zen gobernuaren aitzakia auzoaren aurkako erasoa hasteko. Argudio horrekin, okupatutako eraikinen husteari ekin zioten, beren arabera drogak, armak eta borrokarako materiala bilatzeko. Lehenengo husteetatik azkenekoetaraino jazotakoaren balantzea eginez gero, halakorik ez da ageri inon; eta zerbait nabarmentzekorik egotekotan, kale gorrian utzitako errefuxiatu kopurua da, ehunka baitira. Abuztuaren 26ko lehen oldarraldian beren etxeetatik kanporatutako ia guztiak errefuxiatuak izan ziren, eta beren egoera legala berrikusi asmoz Atzerritarren Bulegora bideratu zituzten. Atzetik etorri dira antzerako eraso gehiago, ehunka errefuxiatu etxeetatik kaleratuz. Asko deportatuak izateko arriskuan egotera pasa dira, eta beste hainbeste kanpalekuetara bideratu dituzte.

Gertaerokin paraleloan, gobernuak asilo eskaera egiten dutenen kopurua murriztea xede duen lege berria osatu du, azaroan onartu berri dena. Honekin batera hainbat neurri iragarri dituzte: Egeo itsasoko kanpalekuak itxiko ditu, aurrerantzean heltzen diren errefuxiatuak Atzerritarren Atxikitze Zentroetara bideratzeko; eta 2020rako 10.000 pertsona deportatuko dituela iragarri du. Guzti hau, Youlountasek azaldu duenez, polizia ministroak migratzaile artean jihadistak etor daitezkeela iradoki bitartean, beren kostaldean ate joka ari den jendea terrorista gisa aurkeztuz iritzi publikoari.

Mitsotakisen etsai nagusia, baina, Rouvikonas talde anarkista da. CrimethInc-ek elkarrizketatutako kidearen arabera, 2008ko abenduan, poliziak Alexandros Grigorópulos gazte anarkista tiroz hil ostean eztandarazitako erreboltak –krisi ekonomikoari eta atsekabe sentipen orokortuari batuta– eraso eta bonba leherketa ugariko aro bati eman zioten bide, baina *Conspiracy of Fire Nuclei* (Συνωμοσία των Πυρήνων της Φωτιάς) eta *Revolutionary Struggle* (Επαναστατικός Αγώνας) talde anarkistetako hainbat kide atxilotu ostean eraso klandestinoek behera egin zuten. "Greziar eskuina etsai berri bat eraiki beharrean zen", dio.

Ekintza zuzena darabil Rouvikonasek. Ekintza publikoen bidez, jendarteko arazoen erantzuleak seinalatzen ditu –instituzio, gobernu, enpresa, etab.–, kasuan kasuko erantzulearen egoitzari eraso eginez. Kalte material sinbolikoak eragitea izan ohi da darabilten taktika. Ekin-

Gasteizen
hartu zure lekua eta
EZ GALDU AUKERA

VITORIA GASTEIZ green capital

ALDABE GE
Abenduak 10, 17:00
Itsasoko sekretuak antzerkia
Ameli eta Xirrikituen jostunek
18-36 hilabeteko haurrak
Abenduak 11, 18:30
Euskal txotxongiloak eskulan lantegia
4-8 urte. Ludoteka

IPARRALDE GE
Abenduak 11, 19:00
Gela bat norberarentzat hitzaldia
Uxue Alberdi. Sarrera librea
Abenduak 15, 18:00
Pirata garrapataren istorioak
Antzerkia, magia eta txotxongiloak

JUDIMENDI GE
Abenduak 14 diciembre ,11:30
Musika tresnak lantegia.Trakamatraka
5-8 urte

HEGOALDE GE
Abenduak 12, 19:00
Eider Garcia de Albeniz
Elikadura haurtzaroan, ba al dakizu zure umeek jaten dutena osasuntsua den?
Abenduak 17, 18:00
Txoriburu ipuin kontaketa. Nizune

LAKUA GE
Abenduak 14, 11:30
Magia parrastan. Imanol Ituiño

DATXO GE
Abenduak 18, 18:30
Materialak berrerabiliz Gabonetako apaingarriak. 4-8 urte. Ludoteka

ZABALGANA GE
Abenduak 12, 19:30
Estutxe birziklatuak eskulan lantegia
9 - 13 urte . Elkartze aretoa

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
Abenduak 11, 19:00
Zortzi Yukon ikus-entzunezkoa
Mattin Zeberio. Ortuño. Sarrera librea
Abenduak 15, 19:00
Högeitavåt. Mendeko emanaldi poetikoa
Iñigo Astiz eta Mikel Ayerbe
Klaustroa. Sarrera librea
Abenduak 19, 19:30
Maria Rivero & Tribu Banda Kintsukoroi
Kontzertua. Falerina taberna.
Sarrera librea

ETXANOBE JAUREGIA
Abenduak 10, 19:00
Maryren madarikazioa: amatasuna eta sorkuntza. Hizlaria: Katixa Agirre
Moderatzailea: Gema Lasarte Leonet

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

ANGEL BALLESTEROS



NO PASARÁN. Izen hori du gobernuaren erasoen aurrean antolakuntzarako eta autodefentsarako sortutako asanbladak.

tzak sinbolikoak burutzeak ahalbidetu die oihartzuna izatea eta era berean, zigor potoloak ekiditea. Dirudienez, baina, gobernua hori aldatu nahirik dabil: "Zigor kodean zuzenketak burutzen ari da, erresistentzia forma oro gogorrago zigortzeko", azaldu zuen Youlountasek. "Ustekabeko ekintza guztiak terrorismo gisa sailkatu nahi dituzte, eta hori Rouvikonasen aurkako eraso zuzena da", dio Arbidek. Hala bada, Rouvikonas talde terroristatzat joa izateko arriskuan da.

Testuinguru horretan, azaro hasieran polizia talde baten aurka buruturiko ekintza batean parte hartzea leporatu diote Rouvikonaseko kide bati. Akusazio horren bidez, taldeari polizia agenteak hiltzeko saiakera egotzi nahi diote. Militante hau atxilo izan zuten, eta bere kontrako auzibidea abiatu dute; atxilotuak gogorki jipoitu zutela ere salatu du. Leporatzen dioten ekintza hartan talde batek istiluen aurkako poliziaren autobus bati molotov koktelekin egin zion eraso, hiru agente zaurituz. Erasoa ez du inork bere gain hartu, eta Rouvikonasek bere ekintza guztiak erreibindikatzen ditu. Hala ere, badirudi gobernuak hortxe ikusi duela taldea terroristatzat jo ahal izateko abagunea.

Azaroaren 9an Atikako penintsulan egindako operazio antiterroristan zenbait arma aurkitu izana adierazi zuten, eta horrekin, Youlountasen arabera, "Estatuak barne etsaia aurkitu du eta lege berriak argudiatu ahalko ditu". Alabaina, oraindik zigor kodean aldaketarik ez da onartu, baina "Rouvikonas" eta "terrorismoa" hitzak elkarrekin aurkeztea iritzi publikoan eragina izaten ari dela dio Arbidek. Gobernua gehiengoaren babesa lortu nahirik ari da, hori lagungarri baitzaio askoren arabera Exarcheiaren aurka hasitako operazioaren azken kolpea izango den horretarako: Rouvikonas taldearekin aurrez aurrekoa. Horrek taldea bera ez ezik, K*Vox eraikin autogestionatua ere jartzen du miran. Beste hainbeste talderen artean, Rouvikonasen egoitza da, eta osasun zentroa bezalako proiektuak barne biltzen ditu. K*Vox-i eraso egitea, ondorioztatu daiteke, Exarcheiaren bihotzetik gertu kolpatzearen antzekoa litzateke.

HURRENGO OLDARRALDIA ARTEKO IMPASSEA

Auzokideak hurrengo erasoaldia edozein momentutan gerta daitekeen susmoarekin bizi dira abuztuaren 26ko lehen errepresio kolpetik. CrimethInc-ekin aritutako kidearen arabera, data hura ez zuen ausaz aukeratu gobernuak. Uztaila bukaeran unibertsitateko asilo legea indargabetzeaz batera –unibertsitateko buruzagitzaren baimenik ezean poliziari unibertsitatean sartzea eragozten diona, 73ko Politeknikoko ikasleen altxamenduan militarrek eragin zuten sarraskiaz geroztik lortua–, Alexis Grigoropoulous hil zuen polizia aske utzi zuen gobernuak, elkarrizketatuaren arabera mugimendu anarkista eta autonomoei zuzendutako probokazio larriak biak. Epe tarte laburrean Exarcheiaren aurkako operazioari bide emateak, bere hitzetan, "Exarcheiari eta honek ordezkatzen duen esperimentu sozial antifaxista eta antipolizialari gerra deklaratu diotela adieraztea du helburu".

Abiatutako guda horrek giroa tenkatu du, eta egunak igaro ahala gora doa tentsioa; hala izan zedin arduratu da Polizia, eraso eta mehatxu bidez. Pistolak gutxienez birritan atera dituztela azpimarratu du Arbidek. Hainbat testigantzak jaso duenez, gobernu berria eratu denetik burutu dituzten hainbat abusu polizialetan, aurrerantzean gauzak horrela izango direla mehatxu egin diete auzotarrei. Tentsioa igo ahala, mehatxuekin adierazi nahi dutena esplizitatzen joan dira, agenteetako batek "Junta bueltan da!" oihukatzeraino, gobernuak diktadurarekiko duen begirune bera erakutsiz. Azaroaren 17a, Politekniko-

ko altxamenduaren urteurrena gainean zela bota zuen mehatxua poliziak. Data seinalatua laino beltz artean antzeman zitekeen ortzi mugan.

Gobernua eta polizia diktadura nostalgiak jota, unibertsitateko asilo legea indargabetzeagatik protestan ikasleek unibertsitate asko okupatuta zituztela, iritsi zen azaroaren 17a, 73ko testuinguruaren antzekotasun askorekin. Milaka pertsona bildu zituen manifestaldia egin ostean, Exarcheia indarrez hartu zuen poliziak. Istiluak gertatu ziren kalean, hainbat zauritu eta atxilotu eraginez. Andreasek ondoko irakurketa egin du gertakarien bueltan: "Azaroaren 17ko indar erakustaldiaren ostean, esango nuke gobernuak ondokoa adierazi nahi izan zuela: berdin dio zenbat zareten, zanpatuak izango zarete. Logika bera aplikatu da husteekin; No Pasarán-ek deitu zuen manifestazio jendetsuaren osteko egunetan, eraikin gehiago hustu zituzten".

Mehatxuek eta erasoek sortzen duten higaduraren aurrean, baina, atzera pausorik emateko asmorik ez daukate auzotarrek. "No Pasarán!", gobernuaren erasoen aurrean antolakuntzarako eta autodefentsarako sortutako asanbladaren izena, borroka garrasi bilakatu da dagoeneko. Talde anarkista ugarik, eta errefuxiatu eta anarkisten aterpe diren okupatutako bi eraikinetako –horietako bat hustua izan da dagoeneko- kideek osatzen dute asanblada, Andreasek azaldu duenez. Erresistentzian diraute, tinko mantentzen laguntzen dien uste sendo batekin: Eraikinak akaso, baina ideiak inolaz ere ezin daitezkela hustu.

"Ez dago ezberdintasun askorik Exarcheiari eraso egitearen edo mugimendu sozialari eraso egitearen artean, Exarcheia baita mugimenduaren zentroa zentzu orotan", dio Arbidek. Esan daiteke, beraz, Greziako Gobernuak mugimendu sozial osoari eraso egiteko zirrikitua aurkitu duela auzo horretan; baina zirrikitu horrek erasoaldirako bidea irekitzen dion hein berean, sektore anarkista eta ezkertiar erradikal guztia altxarazi dezake bere aurka.

Lerrook idatzi bitartean, hurrengo oldarraldia noiz helduko susmoka, atzeguardian diraute auzolagunek. Gobernuak hamabost eguneko ultimatuma luzatu die eraikin okupatuetako bizilagunei, horiek boluntarioki husteko. Epea abenduaren 6an amaituko da, Alexis Grigoropoulousen hilketaren urteurrenean, istiluak egon ohi diren egunean. Panorama zein den kontuan izanik, ez dirudi kasualitate kontua; panorama zein den jakinik, Panagiotis Theodorikakos barne ministroaren adierazpenak maleziagabeak ez diruditen era berean: "Badirudi batzuk beste Grigoropoulous bat ari direla eskatzen".

Hil-irrikak mugiarazten duen Estatu baten aurrean, Atenasko bihotza erresistentzia kolpeka ari da. Ikusteke da zer jazoko den datozen egun, aste eta hilabeteetan.

"Gure aurretik askok egin dute borroka mundu osoan, orain guri dagokigu borrokari jarraipena ematea", dio Andreasek. ●

HONDAKINEN KUDEAKETA

Merkataritza gunean, urruneko salgaiak hurbileko lanak

Etxe zein komertzioetako hondakinen kudeaketa kanpaina politikoetarako gai nagusietakoa izan da azken urteetan, Gipuzkoan batez ere. Alderdiek hondakinak kudeatzeko sistema hartu dute ardatz, bozak irabazi edo galarazteko. Usurbilen duela hamar urte ezarri zen atez ateko hondakinen bilketa, baina ordurako Urbil merkataritza gunean hasita zeuden kudeaketa selektiboarekin.

IÑAUT GONZALEZ DE MATAUKO RADA URBIL-EK UTZIAK

2009an sartu zen indarrean Usurbilen atez ateko hondakinen bilketa, hainbat motako zaborrak (organikoa, ontzi arinak, papera/kartoia eta errefusa) asteko egun bakoitzean jasotzeko. Sistema berritzaile horrek hainbat helburu zituen: konposta egitea bultzatu, zabor kopurua gutxitu eta birziklapen tasa %80tik gora izatea. Udal araudi berriak Urbil merkataritza guneari bidea zabaldu zion hondakinak selektiboki kudeatzeko, baina Leyre Lobato Urbileko zuzendariordearen arabera, haiek jada urtebete zeramaten komertzio zein bezeroek sortutako hondakinak bereizten.

Duela hamaika urte zentroak Marilia Pires langilea hartu zuen hondakinen bereizketa ondo egiten zela egiaztatzeko. Talde baten laguntzarekin, Pires pedagogia egiten hasi zen merkataritza guneko lokal eta bezeroekin, hondakinen kudeaketa selektiboa zergatik eta nola egin behar zuten azaltzeko.

> Nahiz eta hondakinak ondo kudeatu eta birziklapen tasa altua izan, halako gune batek badu berezko arazo bat: geroz eta gehiago saldu nahiak hondakin kopuru handiagoa dakar

Hasiera polemikoa eta zaila izan zela onartu du Piresek, jendeak ez baitzuen ulertzen zergatik bereiztu behar zuten zaborra: "Hondakinen kontuarekin hasi ginenean kontzientzia gutxiago zegoen, eta askok esaten zigun ez zuela zaborra bereiziko. Orduan guk egin behar izaten genuen haien lana, eta kontuan izanda hirurogei saltokitik gora daudela lan handia da hori. Hamaika urte pasata jendeak ulertu du zergatik bereiztu behar duen zaborra, eta orain lana asko errazten digute". Urbiletik, bertatik bertara ikus daiteke Gipuzkoako agintariek zabaldu berri duten Zubietako errausteg iko tximinietako kea.

NOLA EGITEN DUTE LAN?

Urbil bezalako merkataritza gune erraldoi batek sortzen duen hondakin

ZABORREN GELAN EGITEN DUTE URBILEKO LANGILEEK HONDAKINAK BEREIZTEKO ITZALEKO LANAREN ZATI HANDI BAT, NAHIZ ETA GAUR EGUN, URTEETAKO PEDAGOGIARI ESKER SALTOKI ETA BEZEROEK "ASKO ERRAZTEN" DUTEN ZEREGIN HORI. MERKATARITZA GUNEKO ARDURADUNEK DUELA HAMAIKA URTE JARRI ZITUZTEN PERTSONALA ETA BALIABIDEAK HONDAKINAK KUDEATZEKO.

BLACK FRIDAY EGUN ZEHATZETAN LANA BIDERKATU EGITEN DA ETA ASKOTAN ZABOR POLTSAK ITZULI BEHAR IZATEN DIZKIETE SALTOKIEI, ONDO BEREIZI DEZATEN.

mordoa bereiztea lan handia dela pentsa lezake batek, eta hein handi batean, hala da. Egun Urbilek 65 komertziotako hondakinak errebisatu eta sailkatzen ditu, Eroskirenak izan ezik.

Lehen aipatutako hondakin taldeez gain, enpresa gehiagorekin lan egiten dute bestelakoak bereizteko: beira, lanpara hondatuak, pilak, arropa, olio erabilia... Horretarako, birziklatzeko puntu bereziak dituzte.

Bestalde, bezeroek merkataritza gunean dauden edukiontzietan botatzen dituzten hondakinak ere errebisatzen dituzte. Honek ematen dio Piresi lan handiena, haren esanetan gaur egun saltokiek orokorrean "nahiko ondo" birziklatzen duten arren, salbuespenak salbuespen. Egun zehatzetan, baina, lana biderkatu egiten da, jende-oldea oso aldakorra baita. Azaroaren lehenean, adibidez, uste baina lan handiagoa izan zuten; nahiz eta jai eguna izan, ostalaritzako lokalak eta zinemak irekita zeuden, eta eguraldi eskasa egin zuenez inoiz baina bezero gehiago izan zela esan digu Lobatok: "Gutxitan ikusi dut hainbeste jende", zioen. Piresek dioenez halako egunetan McDonald's eta antzeko lokalak lepo beteta egon ohi dira, eta langileek duten asaldurarekin nahiko gaizki birziklatzen dute; askotan zabor poltsak itzuli behar izaten dizkiete ondo bereizi dezaten.

"EZIN DUGU EZER EGIN"

Nahiz eta hondakinak ondo kudeatu eta birziklapen tasa altua izan, halako gune batek badu berezko arazo bat: geroz eta gehiago saldu nahiak hondakin kopuru handiagoa dakar. Enpresei hainbat irizpide jartzen dizkiete lokala ezarri aurretik –hondakinen kudea-

111 hostoz eta orriz jantzi

JAKOBA ERREKONDO

Jakoba Errekondok ARGIAn landareei buruzko 1111. artikulua idatzi du 2019an. Hauen antologia da liburu honek biltzen duena, 1111 horietatik hautatutako 111.

Edizio berezikoa izanik, liburu gisa ere oso da ederra eta artikuluen aukeraketa Euskal Herriko alor anitzetako 22 pertsonak egin dute, baita bakoitzak bere hautaketa azaltzen duen sarrera idatzi ere.

Hitzaurrea

SUSTRAI COLINA

Artikuluen hautatzaileak

DANELE SARRIUGARTE
BEÑAT SARASOLA
AMETS ARZALLUS
MARKEL LIZASOAIN
ENEKO MITXEO
ONINTZA ENBEITA
ESTITXU EIZAGIRRE
LEIRE ETXAIDE
MAIALEN LUJANBIO
HARKAITZ CANO
IDOIA TORREGARAI
KOLDO ALMANDOZ
PANTXIKA MAITIA
JOSEBA TAPIA
ARANTXA ITURBE
ANDONI EGAÑA
ALEX MENDIZABAL
ITXARO BORDA
XABIER MONTOIA
ELIXABETE GARMENDIA
SAGRARIO ALEMAN
ANJEL LERTXUNDI
ANTTON OLARIAGA

Jakoba Errekondok sinatuta jasotzeko aukera

LIBURUA SALGAI!
20€*

ARGIA Eskaerak egiteko sartu: **AZOKA.ARGIA.EUS** edo deitu: **943 37 15 45** *Bidalketa gastuak **4 €**

ORGANIKOA BEREIZTEKO EDUKIONTZI ILARA. 65 LOKALETAKO HONDAKINAK KUDEATZEN DITU URBILEK.

ketak udal araudia errespetatu dezala, adibidez–, eta horiek kontratuan idatziz onartu behar dituzte. Hondakinen produkzio masiboa geratzeko irizpiderik ez dago ordea, eta Lobatok aitortu du ia ezinezkoa litzatekeela halakorik.

Gehiegizko hondakin produkzioaren munduko ikur nagusia McDonald's janari lasterren enpresa da. Berrerabili daitekeen bakarra erretiluak dira bertan, beste guztia erabili eta botatzekoa da: edalontziak, kartoizko kutxak, lastotxoak, ontziak... Beste jatetxe batzuetan platerak, edalontziak, katiluak eta mahai-tresnak garbitu eta berriz erabiltzen dira. Baina McDonald's-en ez.

Enpresa estatubatuarrak munduan 38.000 lokaletik gora ditu, eta aisa irudika dezakegu zenbat milaka tona kilo hondakin sortzen dituen egunean, berrerabili beharrean. Halako enpresa multinazional baten aurrean Urbilek zaila du ezer egitea, Lobatoren arabera, eta horrek askotan ezintasuna sortzen diela dio.

SALTOKIAK ARRASTOAN SARTZEKO MUGAK

Eguberriak ate joka ditugu, eta halako egunetan kontsumoak, eta ondorioz, hondakin kopuruak, nabarmen egiten du gora. Egun horietan, Piresek eta garbiketako beste lankideek lan gehiago izaten dute saihestu ahal izango litzatekeen zaborra biltzen eta sailkatzen. Baina merkataritza guneko arduradunek azaldu dutenez muga handiak dituzte saltokiei arauak ezartzeko orduan, ez dezaten gehiegizko hondakin hori produzitu.

Instituzio publikoak dira kasu hauetan eskumen eta indar gehiago dituztenak enpresak arrastoan sartzeko, baina Urbilen ikusitakoaren arabera, alde horretatik ez da aurrerapen askorik ageri. Alderdiek ingurumenarekiko konpromisoaz hitz egiten duten bitartean, ehun enpresa munduko kutsadura igorpenaren %70aren erantzule dira. Multinazionalek gobernuen aurrean duten inpunitatearen erakusgarri dira, oraindik, gehiegizko hondakin eta kutsadura hori. ●

Antolatu **2020** urtea!

GAZTEZULO AGENDA

PEGATINA ETA ILUSTRAZIO ESKLUSIBOAK

Ilustrazioak: **@studioolrait**

GAZTEZULO
DENDA-ONLINE

denda.gaztezulo.eus

Jendeak gaixo dagoenean bere hizkuntzan artatzea nahi du”

AWEN IORWERTH, MEDIKU ETA IRAKASLE GALESA

Irlandarrak eta galesak izan dira Euskal Herrian. Galdakao-Usansolo ospitalea, EHUko Medikuntza fakultatea eta UEU bisitatu dituzte. Gaixoak bere hizkuntzan artatzeko bideak ikasten eta praktikara eramaten ari dira. Ahalegin horretan ari da Awen Iorwerth traumatologo eta irakaslea. Cardiff Unibertsitatean medikuntzako ikasleei eskolak galesez ematen hasi zen lehen irakaslea da.

ONINTZA IRURETA AZKUNE · DANI BLANCO

Gaixoaren lehen hizkuntza erabiltzea oso garrantzitsua den hiru arlo aipatu ohi dituzu. Zeintzuk dira eta zergatik dira hain garrantzitsuak?

Galestar oro artatu beharko litzateke galesez, baina arlo kritikoak hiru dira: haurrak, buru gaixotasunak dituztenak eta adinekoak. Haur batzuek hizkuntza bakarra hitz egiten dute. Umeak, nahiz eta ume izan, esan diezaioke medikuari non duen min, nola sentitzen den, baina umeak osasun langilearen hizkuntza bera hitz egiten ez badu komunikazio arazoak daude, eta haurra hitz egiteko aukerarik gabe uzten da. Nire haurrak 4 urtera arte galesez baino ez zuen egiten eta 2 urte zituela garapen aholkularitza behar izan zuen. Marrazkiak erakusten zizkioten, marrazkiak aukeratu behar zituen... Horrelako gauzak ezin dira egin umearen hizkuntza erabili gabe. Gurasoek haurrari galesez egingo diote egoera horietan, baina familia horren hizkuntza galesa izanda, harreman horretan ingelesez ari den osasun langileak giroa mozten du, nahiz eta gurasoek ingelesa jakin. Horrelako egoeratan, gurasoek nahiago dute galesez egitea, bereziki kezkatuta daudenean. Umearen osasun arretan galesa erabiltzea nahi dute.

Buruko gaitzak dituztenez ari garela, gaixotasunaren diagnosia egiteko ezinbestekoa da pazientearekin ondo komunikatzea. Harekin hitz eginda biribildu behar duzu diagnosia. Bigarren hizkuntzan ez duzu lortuko bere lehen hizkuntza erabilita lortuko zenukeen bezain diagnosi azkarra eta zuzena.

Baina badira bestelako egoerak, diagnosia ondo eginda dagoenean ere. Depresio sakona baduzu bigarren hizkuntza gal dezakezu. Batzuk ez dira gai bigarren hizkuntzan komunikatzeko, inondik ere. Ez badiozu ulertzen, nola lortuko duzu haren konfiantza eta nola bideratuko duzu ondo tratamendua, nahiz eta diagnosia ondo eginda egon?

Adinekoei dagokienez, ez da arraroa bigarren hizkuntza desagertzea eta lehen hizkuntza indartsu itzultzea. Zaharrei, gaixotasun serio batek eraginda ospitalera joaten direnean, sarri burua nahasten zaie, eta egoera are latzagoa egiten zaie lehen hizkuntzan ezin badute komunikatu. Behin baino gehiagotan gertatu zait, zaharrari dementzia diagnostikatu diote, eta gertatzen den gauza bakarra da desorientatuta dagoela eta bigarren hizkuntzan hitz egin ezinik geratu dela. Horregatik da garrantzitsua guk identifikatzea gales hiztunak, hasierako nahasmendua arintzeko.

Kontua beti ez da gaixoak ez dakiela hizkuntza, haurrekin gertatu daitekeen bezala. Bigarren hizkuntza jakinda ere, komunikazioa ahulagoa izan daiteke, edo behintzat pazientea ez da hain seguru sentitzen.

Neuri gertatzen zait. Egun luzea izan dudanean eta gau aldera ebakuntza egitea egokitzen zaidanean, galesez hizketan hasten naiz ebakuntza gelan. Nekatuta nago, lehen hizkuntzara itzultzen naiz. Eta ni ez nago gaixo, nekatuta baizik. Jendeak, gaixo dagoenean, bere hizkuntzan edo berak aukeratutako hizkuntzan artatzea nahi du, eskatzen ibili beharrik

gabe. Gauza oso oinarrizkoetan ere, garbitzeko eskatzeko edo komunera eramateko, lehen hizkuntzan nahi du. Hitzak badakizki bigarren hizkuntzan, baina giro erosoan sentitu nahi du. Horrelako egoeratan 'erloju ingelesa' jarri behar da abian, eta nik badakit galesez pertsona desberdina naizela. Pentsatzeko beste modu bat da semeari galesez hitz egitea.

Gogoratzen naiz ama hiltzen ari zela, ingelesez egitea familiaren giro pribatuan ia-ia muturra sartzea bezala bizi izan genuela. Hiltzen ari zen eta berak ere ingelesez egiten zuen.

Diagnosiaren %80 gaixoarekin hitz eginda lortzen duzue.

Gaixoa adi-adi entzun behar duzu. Zer egingo duzu ez badiozu ondo ulertzen, bere hizkuntzan ari delako? Zer egingo duzu, zuk ez dakizulako bere bigarren hizkuntzan hizketan jarri baduzu, eta ez bada lehen hizkuntzan bezain ondo moldatzen? Eta %80aren kontua ez da Galesko edo Euskal Herriko kontua, mundu guztian diagnosiaren %80 gaixoarekin hitz eginda lortzen da.

Behar handia dagoen hiru arlo aipatu dituzu, baina gaixoak bere hizkuntzan artatzeko eskubidea du, nahiz eta bigarren hizkuntzan oso ondo moldatu.

Jakina. Pazientea tematu daiteke osasun arreta lehen hizkuntzan, galesez, jaso ahal izateko, baina hizkuntza aldarrikatzen hastea bizipen berria da gaixoarentzat, ez dute horrelakoetan hasi nahi, gaixoak medikuarekin egon nahi du lehenbailehen eta pentsatuko du galesez eskatzen hasten bada ilaran azkena jarriko dutela. Gaixoak ez daude eskatzera ohituta, eta guk eskaini behar dugu zerbitzua. Beraz, bide luzea daukagu galesez nahi duten gaixoak identifikatzen eta galesa dakiten langileak identifikatzen. Gaur egun ez dakigu zenbat langile gales hiztun dugun, non dauden, ez dakigu zein espezialitatetan dauzkagun beharrak... Ez badakigu zein diren galesez egin nahi duten gaixoak eta galesez dakiten langileak, ez ditugu bi munduak inoiz ezkonduko.

Orain nola moldatzen zarete?

Ospitaletan derrigorra da arreta galesez eskaintzea, ez ordea familia medikuentzat. Aurka egiten dute familia medikuek, negozio txikiak dituzte, eta esaten dute ez daukatela baliabide ekonomi-

korik eta bestelakorik hizkuntzari heltzeko. Oraingoz ez daude derrigortuta, baina seguru nago iritsiko zaiela. Medikuei ikusarazi behar diegu zaintza egoki egiteko betebeharra dela galesez egitea. Gobernuak diruz lagundu behar ditu eta aholkularitza eskaini, zeren bestela negozio txiki horiek jarraituko dute esaten lan gehiago egin beharko luketela, hizkuntza bat gehiago dela. Bai, derrigorra da, eta guk lagunduko dizuegu bide horretan. Orain gauzak dauden bezala, gaixoaren aukerak murrizten ari gara. Galesez dakiten medikuek esaten digute, "nik badakit galesez!", baina horrela ezin gara ibili, ale solteka.

Cardiff Unibertsitatean ematen dizkiezu eskolak mediku gaiei. Zu izan zara galesa erabiltzen lehen irakaslea.

2015ean hasi nintzen. 300 ikasle nituen eta lau ziren galesez egiteko gai. Ikasgai bat galesaren bidez ematen nuen. Aurten 24 ikaslek dakite galesa. Guk galesez egingo duten medikuak nahi ditugu, baina hori baino lehen Galesko ikasleak izatea lortu behar dugu. Gure ikasleen %20 baino gutxiago da Galeskoa. Ikasleak etorri eta joan egiten dira. Beraz, bertako mediku ikasle gehiago behar ditugu eta galesaren bidez ikasiko duten ikasle gehiago. Ikasleek galesa erabiltzeko konfiantza lortzea nahi dugu, batzuek oinarrizko gauzak ikasiko dituzte, beste batzuk medikuntzaz galesez hitz egiteko gai izango dira, medikuntza-lanak hizkuntza horretan egingo dituzte beste batzuek.

Kontua da gure unibertsitatean kultura aldaketa eragitea. 300 ikasle ditut eta ikasgaia galesez ematen dudanean ia denek itzultzailearen hitzak entzungailuaren bidez jaso behar dituzte, ez dakite galesa. Baina horrela, konturatzen dira itzultzailea erabili behar dutela hizkuntza ezagutzen ez dutelako, beste hizkuntza batean aritu gaitezkeela medikuntzaz, galesa hizkuntza bizia dela... Jaso dugun erantzuna harrigarria izan da. Gales hiztunek konfiantza handiagoa lortu dute, beraien hizkuntzan ari baikara eskolak ematen. Beste hizkuntza gutxituetako ikasleak ere ohartu dira zer esan nahi duen hizkuntza gutxituan eskolak emateak. Neska afrikar bat etorri zitzaidan eta esan zidan: "Eskerrik asko, orain badakit neure hizkuntzak balioa duela". Elebakarrak ez dira kexatu, esaten dute adi-adi daudela itzulpenak entzuten, ez dute gaizki hartu galesez egitea. Oso positiboa da bizipena.

> "Gaixoak ez daude bere hizkuntzan egiteko eskatzera ohituta, haiek eskatu gabe osasun langileok eskaini behar diegu zerbitzua"

Euskal Herrira bisita egin duzue. Zerbait antolatzeko asmotan al zabiltzate?

Hizkuntza gutxituetako medikuntzako biltzarra antolatzea nahiko genuke. Datorren urtean, Galesen.

Hizkuntza gutxituak hitz egiten diren eremuetan medikuntza nola gauzatu jakiteko jarraibideak zehaztu eta elkarbanatu nahiko genituzke. Horrekin lotuta, osasun eta zaintza zerbitzu egokia emateko komunitate bereko profesionalak nola inguratu aztertu nahiko genuke.

Adibidez, Zeelanda Berrian komunitate polinesiarretako langile oso gutxi dago medikuntza eta osasun zerbitzuetan. Bada, Auckland Unibertsitateak programa bat egin du komunitate horietako ikasleak gerturatzeko, ondoren osasun langile izateko. Adibide horretan hizkuntza ez da ezaugarria, baina kontuan hartzen da komunitate baten premiei erantzuteko komunitate bereko profesionalak behar direla. Gurera ekarrita, Galesera eta Euskal Herrira, horrek esan nahi du hizkuntza kontuan hartu behar dela. ●

BABESLETZA:

EZKERRA ETA ESKUINA BERA DIRENEAN

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Argazkian ezkerte zuria. Eskuinerantz hazten da.

Zientziak zerbait baldin badakar, hori ulermena da. Ulermena komunikazioan. Gauzak izendatzeko eta esateko plaza komun bat sortu beharra. Landareen eta gainontzeko bizidunen kasuan bi hitzeko sistema hautatu zen eta tokian tokiko izenen gainetik edonork, berezko duen hizkuntza dena delakoa izanda ere, bi hitzeko izen horiekin ulertuko du nor aipatzen den. Adibidez, kuia arrunta izendatzeko *Cucurbita maxima* erabiltzen da. Lehena generoa da eta bigarrenak genero horretako zein espezie den adierazten du. Espeziearen barruan azpiespezieak, barietateak, kultibarrak, hibridoak eta abar ere izan daitezke, eta horrek izen bikoitzeko sistema atzetik osatzen du. Honekin izendapenaren zehaztasun ahalik eta zorrotzena bilatu nahi da. Adibidez kuia *Cucurbita maxima* bada, potimarron kuia *Cucurbita maxima Duchesne ssp. maxima cv. maxima 'Red Kuri'* da. Eta egia da, zehaztasunaren atzetik joanda galtzeko arriskua dago, edo izenekin erotzeko. Ikerketan sakontzen den eran, landareen izenak aldatu egiten dira. Lehen genero batean sartzen genuena orain beste batean ikusten dugu. Landare batzuetatik berriak ere sortzen dira, hibridatze naturalez edo guk geuk sortuak; loreen eta barazkien baratzeetarako, adibidez. Izenen saltsa horretan erabakiak hartzen dituztenek ez dute lan makala!

Antzera ibiltzen dira landareen deskribapenak egiteko, denok ulertze aldera, oinarriak adosten eta ituntzen. Landare bat nolakoa den azalpenak emateko eta hartzeko garaian ere elkar ulertu beharra dugu.

Deskripzioak eta azalpenak ikusten dugunari buruzkoak dira, batez ere; begikoa da nagusi. Bakana da beste zentzumenen erabilera –usaina, entzumena...–. Beraz, zer ikusten dugu?

Igokariekin bada istorio polit bat. Landare igokariek igotzeko era askotako trikimailuak dituzte. Azpikoari heldu eta luzatzeko batzuk kiribilak ematen dituzte (adibidez, ilarrak, *Pisum sativum*), beste batzuk sustraitxoak (huntzak, *Hedera helix*), baita bentosak ere (huntza japoniarrak, *Parthenocissus tricuspidata*). Zenbaitek hazteko aihena dute landarearen muturrean eta aihen hori da heldu behar duenari bueltak emanez luzatuko dena, aparteko organo berezirik gabe. Aihenaren hazkundea azaltzerakoan botanikarien artean itunduta dago gainetik begiratuta aihenak erlojuaren orratzen martxa badarama eskuinerantz hazten dela esan behar dela; eta alderantziz hazten bada ezkerreranzkoa dela. Eskuinerantz hazten dela esaten den horietan landareari berari begiratzen badiogu gure aurrean ezkerrez aurrera igotzen da, edonondik begiratuta ere. Adibidez, atxaparra esaten diogun landarea, *Lonicera spp.* horrelakoa da. XX. mendean lupulua (*Humulus lupulus*) egin zen Gipuzkoako herrietan ezker-aihena esaten zaio. Botanikarientzako eskuinerantz hazten dira, "dextrórsum" dira. Era berean, botanikarientzako ezkerrerantz hazten diren *Convolvulus arvensis* eta *Calystegia sepium*, euskaraz ezkerte beltza eta ezkerte zuria dira; eta biak ala biak eskuinaz aurrera hazten direla ikusten dugu.

Botanikariek zehaztuta daukate, baina euskaraz bizi garen euskaldunontzako ezkerra eta eskuina gauza bera da. Agi danean. ●

CHILLIDA LEKUKO LURRA KAFETEGIA

TOKIKOA ETA ARTISAUA

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Apirilean ireki zuten Chillida Lekuko Lurra Kafetegia, Fede Pacha sukaldariaren gidaritzapean. Hasieratik egin dute bertako produktuen alde: hurbilekoak dira prestatzen dituzten osagaiak, modu artisauean eginak eta ahal den heinean ekologikoak. "Museoa kudeatzen dutenen baldintza zen kafetegian eskaintzen den guztia bertakoa edota ekologikoa izatea", azaldu du Pachak.

DIAMETRO 200 JATETXEAREN HEDAPENA

Hernaniko Orona Ideo eraikinan da Diametro 200 jatetxea, eta Oronako langileen jantokia ere hornitzen du. Diametro 200 ezaguna da bertako produktuak zerbitzatzeko egin duen apostuagatik. Pacha sukaldariak urteak egin ditu proiektu horretan lanean, eta Lurra Kafetegia nolabait horren segida edo luzapena dela dio: "Eskaintzen dugun produktuaren ia %100 da bertakoa: ardo ekologikoak, garagardo artisaua, ogia, gaztak, haragia, arraina... Euskal Herrian egiten dena hemen presente dago".

Kafetegirako behar dituzten produktuak nola eta nondik lortzen dituzten galdetu diogu. "Urteak daramatzat hostalaritzan tokiko produktuekin lanean, Diametro 200 proiektuan ere sei bat urte badaramatzagu modu honetan, eta jadanik osatua dugu produktuak erosten dizkiegun ekoizleen sarea", dio. Jatetxeetan bertakoa eskaintzeko gogoa behar dela dio, ez besterik. "Denetik egiten da gaur egun Euskal Herrian, ez dago arazorik produktuak lortzeko". Barazkia asko erabiltzen dute Lurra Kafetegiko plateretan, eta gehiena Hernaniko Karabeleko Etxalde agroekologikoari hartzen diote.

BERTAKOA JATEA KULTURA DA

Gure inguruko produktuak eskainiz bertako kultura bultzatzen ari garela uste du Pachak. "Gure kultura gastronomikoa da, gure amek eta aitek betidanik izan dutena, baserrietan egon dena... arraroa da jendeak lotura hori ez egitea", azaldu du. Ekonomiaren zirkulua bertan istea garrantzitsua dela gaineratu du: bertako produktuen eskaria baldin badago, ekoizpena ere egonen da, eta bertako ekonomia indartuko da modu horretan: "Gure baserritarrek ekoizten dituzten produktu artisauak kontsumitu behar ditugu gurea dena bultzatzeko. Ez dauka misterio gehiagorik!". ●

Basherri sarea
GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK
info@basherrisarea.eus · www.basherrisarea.eus
HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!

ASTEKO PORTADA HAUTATUA

2013ko urtarrilaren 13a

KOLDO IZAGIRRE

Joxemi Zumalabe 43 urte bete gabe hil zen, gazterik, onenak emateko adinean. Oker zaude. Zumalabe zahar samar hil zen. Egin al duzue hogeigarren mendean behar baino lehen kendu zizkiguten euskaltzaleen kontaduria? Haren adinera heldu gabeko idazlez betea daukagu.

Joxe Eltzok, umeak musikaz gozatzen zituen maisu poetak, 23 urte zituen agure segadunaren bisita hartu zuenean. Batxik, marinel kronista paregabe hark, 28 urte. Inazio Kamarero-Nuñezek, antzerkigile hasi berriko nekazaritza teknikariak, 29 urte. Jose Ramon Astibiak 34. Antonio Arrutik 37. Jon Garbizuk 37. Gurutz Sarasolak 20. Loramendik 26. Xabier Lizardik 36. Eli Agirrek 24. Martin Lekuonak 24. Joseba Markiegik 41. Lauaxetak 32. Peli Markiegik 41. Josu Peñak 22. Jean Etxepare Landerretxek 22. Rikardo Arregik 27. Gabriel Arestik 40. Gotzon Alemanek 25. Ibon Zabalak 21. Jose Migel Bidadorrek 39. Eritasunez, istripuz, gerran, paredoian, bere buruaz beste eginda... eta gure herriak, gure hizkuntzak eskatzen duen guztizko maitasunak akituta. Urteak ez, mendeak zor dizkigu bizitzak.

Bizitzak, bai, hark kendu zizkigun, ez heriotzak. ●

1965

DURANGOKO AZOKA

Lehen aldi hartatik urteroko hitzordua

MIREN OSA GALDONA

Abendua ate joka sentitzearekin batera hasten gara Durangoko Azokan "erosi beharrekoak" zerrendatzen; labetik atera berriak diren diskoak, liburuak, aldizkariak eta beste zer nahi eskuratzeko desiran. Landakoko etxola txikien bestaldean egon behar direnentzat ere urteroko zita da, euskal kulturaren ekosistemarentzat ekoizten duten sortzaile, argitaletxe nahiz aldizkarientzat. Aldiz, halako topagunea izan ote zen Durangoko Azoka lehen urtean? 1965eko azaroaren 7ko *Zeruko Argia*n topatu dugu erantzuna.

"Ogei euskal argitaldari Durangoko liburu azokan". Hala ekarri zuen *Zeruko Argia*ren 114. zenbakiak Durangoko Azokaren lehen edizioa azalera. *Zeruko Argia*koak ere euren produktuak saltzen aritu ziren hiru egunez; egun ez bezala, urriaren 30, 31 eta azaroaren 1ean izan zen hitzordua, eta Landakon ez, Elizako arkupeetan jarri zituzten estreinakoz salmenta postuak. "Euskalerri guziko jendea bildu da Jakintza-Agerpen onen inguruan", dio albistearen sarrerak. Bi argazki ageri dira, bata bestearen azpian: eskuak gurutzatuta dituen gizon bat lehenengoan, eta hiru emakume bigarrenean, liburu eta produktuei begira.

Zeruko Argia ezin zitekeela lehendabiziko euskal liburu eta diskoen azoka nagusitik kanpo geratu idatzi zuen Aranburuk, artikulua sinatu zuen kazetariak, eta "batzordekide" ere Durangon izan zirela dio: Aita Agustin Ezeiza eta Jose Salegi jauna. Irakurri daitekeenez, aurkezpen ekitaldia goizeko hamarretan izan zen, eta Berrizko dantzariek banakoarekin eman zioten hasiera hiru eguneko egitasmoari. Abesti saioak ere izan ziren, albokariek eguna soinu ederrez girotu zuten, eta ikus-entzunezkoen proiekzioak osatu zuten agenda kulturala.

Zein liburu izan zen salduena? *Zeruko Argia*k egin zuen galdeketaren arabera hauek, gaztelaniaz idatziak gehientsuenak: *Batalla de Vitoria* Arabako Leize zuloetako taldearen ikastaldiak, *Obras completas de José María Iribarren*; *Arlotadas*; *Pastores y pelotaris vascos en Estados Unidos; Álava Sola de Arte y Fé*; *Camino de Santiago*; *Escudos Biasonados; La pesca de la ballena*; eta *Cancionero Vasco*, besteak beste. Euskarazko argitalpen arrakastatsuenen artean, *1965eko Bertsolarien Txapelketa*, Lauaxetaren liburuak, *Eguberriko Abestiak* eta Eusebio Bilbaoren hauspo eresaldiak daude.

"Zorion betea" opa zien Aranburuk artikuluan Gerediaga elkartearen kideei, halako egitasmo eder bat aurrera ateratzeagatik. Geroztik gauzatu ez den ideia interesgarria ere plazaratu zuen: "Durangok jarri du lenengo arria. Noraino zabalduko ote da emen asitako etxea eta erakusketa? Aurrera ba, beldurrik gabe!". *Zeruko Argia*ren "gogoa" desira halako plazak Euskal Herri guztian barrena zabaltzea zen; euskal kulturak Donostian, Gasteizen, Bilbon nahiz "Bidasoaz beste alde" liburu bete plaza eduki zitzan. ●

ARGIAREN AURTENGO PRODUKTUAK

Katalogo bat baino zerbait gehiago

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ez zinen beldurtuko aurreko asteko artikuluarekin, ezta, irakurle? Bai, ARGIAri eman diote Durangoko Azokan "Gogoetaren plaza" dinamizatzeko aukera; mahai-inguruak antolatuko ditu aurten. Baina egutegi takoz betetako postua ere hor izango duzu, urtero bezala. Hori baita aspalditik gure Durangoko izarra. Gainera aurten kanpoko plazan ere ARGIAk postua jarriko du, Landakoko zurrunbiloan sartu nahi ez duenarentzat.

Bai Landako barruko ARGIAren postuan eta baita kanpoko plazan, aurkituko dituzu Mbolo elkartearekin batera ateratako "Inor ez da ilegala" lema duten jertseak, poltsak eta kamisetak. Lan-ildo berean, Mikel Garcia Idiakezek aurten argitaratu duen *Hasiera berri bat* liburua egongo da salgai, zeinak kontatzen duen Pape Niang-ek Senegaldik Euskal Herrira egindako migrazio bidea.

Eskuratu ahal izango dituzu ARGIAk *Bizi Baratzea* lan-ildoan aurten argitaratutako nobedadeak: *111 hostoz eta orriz jantzi* liburua, Jakoba Errekondok astekari honetan argitaratutako artikuluen bilduma. Liburu hau diseinuz eta edukiz berezia da, artikuluak hautatzen 22 pertsonak hartu dutelako parte, direla bertsolariak, idazleak, musikariak... 2020ko *Landareak Lantzen* agenda liburua ere bertan aurkituko duzu, ilargiaren egutegiaren arabera egun bakoitzean landare gaietan zein lan egin kontsultatzeko.

Ildo berdeari jarraituz, *Xapoketan* karta-jokoa eta posterra ere aurtengo berrikuntza dira. Bertako animaliak bertako hizkuntzan ezagutu ahal izateko aukera ematen digu Lore Erriondo pedagogian adituak, Iñaki Sanz-Azkue biologoak eta Eñaut Aiartzaguena ilustratzaileak landutako material didaktiko honek.

Urte bakarrean argitaratutako hiru kazetaritza liburuek ere merezi dute aipamenik. Garciaren *Hasiera berri bat*-ez gain, Onintza Irureta Azkuneren *Berdea da more berria* ere arrakasta izaten ari da eta argitaratutako urte berean bi hizkuntzatara itzuli da dagoeneko, gaztelera eta katalanera. Borborka dauden bi borroka uztartzen ditu elkarrizketetan oinarritutako liburuak: feminismoa eta erresidentzietako langileen borroka. Hirugarren kazetaritza liburua, mendeurrena baliatuz Gorka Bereziartua Mitxelenak idatzitako *Ez gara neutralak* da, orain aste batzuk etxean jaso genuen liburu gorria.

Eta nola ez, egutegia. Aurten efemeridez osatua. Baliagarri izango zaigu sarri ahanzturan geratutako gertakizun, borroka eta pertsona horiez hitz egiteko etxean, ikasgeletan, euskaltegietan, herri mugimenduetan.

ARGIAN intentsitate handiko urtea izan dela nabari da eta Durangon topa ditzakegu emaitza guztiak. "Lantaldeetan lan egitearen ondorio da hau guztia", azaldu digute ARGIAren egoitzatik, norbanakotik kolektibora pasaz proiektuak emankorragoak izan ohi baitira. Etxe honetan teoriak funtzionatu du. ●

Durangoko Azoka
Agenda

ABENDUAK 5

XAPOKETAN KARTA-JOKOA
Aurkezpena: Eñaut Aiartzaguena
Saguganbara **17:00**

BERDEA DA MORE BERRIA
Liburu aurkezpena: Onintza Irureta
Areto Nagusia **18:30**

ABENDUAK 6

GU GARA EUSKAL PRENTSA. EUSKARAZ ETA EZ ELEBITAN
Mahai-ingurua:
Josu Landa eta Elixabete Garmendia.
Gogoetaren Plaza **12:30**
Musika Eskolan Montevideo etorbidea 7.

LIZENTZIA LIBREAK KULTURGINTZAKO ALORRETAN
Mahai-ingurua: Gotzon Barandiaran, Miren Narbaiza eta Dabid Martinez.
Gogoetaren Plaza **18:30**
Musika Eskolan Montevideo etorbidea 7.

111 HOSTOZ ETA ORRIZ JANTZI
Liburu aurkezpena: Jakoba Errekondo
Areto Nagusia **18:30**

ABENDUAK 7

KULTURA LANA DA. PROFESIONALIZAZIOA HIZPIDE
Mahai-ingurua: Maite Mutuberria, Danele Sarriugarte eta Jurgi Ekiza.
Gogoetaren Plaza **12:30**
Musika Eskolan Montevideo etorbidea 7.

PAPE NIANG. HASIERA BERRI BAT
Liburu aurkezpena: Mikel Garcia
Areto Nagusia **13:00**

EZ GARA NEUTRALAK
Liburu aurkezpena: Gorka Bereziartua
Areto Nagusia **16:00**

EUSKARA INTEGRAZIO HIZKUNTZA
Mahai-ingurua:
Petra Elser, Tarana Karim eta Bouba Diouf.
Gogoetaren Plaza **18:30**
Musika Eskolan Montevideo etorbidea 7.



Odol isuria nola saihestu

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Bordele, 1283ko ekainaren 1a. Karlos I.a Anjoukoak eta Pedro III.a Aragoikoak, elkarri erronka jo ondoren, hitzordua toki eta data horretan jarri zuten. Bordeleko desafioan Siziliako tronuaren auzia behin betiko erabakiko zen.

Urte batzuk lehenago Siziliako Erresuma Karlos Anjoukoaren esku zegoen, baina 1282ko martxoaren 30ean, aragoitarrek uharteko frantziarrei eraso egin zieten. Siziliar Bezperak esaten zaio sarraski hari. Anjoukoak erasoari aurre egin nahi izan zion; hasieran Aragoiko erregearen tropak mendean hartzea lortu arren, Mesinako guduan porrot egin zuen eta, koroaz gain, 10.000 soldadu galdu zituen.

Orduan, halako odol isuriak saihesteko, eta, ustez, eskuzabaltasun keinu bat eginez, Karlos I.ak desafioa zuzenean bota zion Pedro III.ari. Biek aurrez aurre egingo zuten duelua, tropak arriskuan jarri gabe, eta irabazlearentzat izango zen Siziliako tronua –bietako bat kokildu eta azalduko ez balitz, bestea joko zen irabazletzat–. Errege bakoitzak hainbat zaldun izango zituen alboan; iturri batzuen arabera 40 zaldun izango ziren; beste batzuen arabera, 100. Eta hemendik aurrera batzuen eta besteen aldeko iturriek oso bestelako informazioa ematen dute.

Iturri gehienak bat datoz Aragoiko erregea mirabez jantzita eta isilean azaldu zela esatean. Baina haren aldekoek erabaki burutsu eta bizkortzat jo zuten hura, eta aurkakoek, koldarkeriatzat. Batzuk diote Karlos I.a ez zela Napolesetik mugitu ere egin; besteek, maiatzaren 15erako Bordelen zegoela. Anjoukoa han zegoela onartuta ere, haren iloba Felipe III.a Frantziako erregeari laguntza eskatu omen zion eta hark 12.000 soldadu bidali omen zituen Bordelera. Hortaz, Karlosek dueluaren baldintzatako bat hautsi zuen eta Pedrok jalinaren gainean zegoelako hartu omen zuen mozorrotuta eta ezkutuan azaltzeko erabakia.

Biek zioten dueluaren gunera azaldu zirela –ordu berdinean ez, ordea–, eta bestea ez zela agertu. Biek jo zuten bestea koldartzat eta beren burua irabazletzat eta Siziliako errege legitimotzat.

Kontuak kontu, Siziliako auzia ez zen Bordeleko Desafioan konpondu. Hori bai, odol isuria guztiz saihestea lortu zuten, bai soldaduena, bai erregeena beraiena ere. ●

SIZILIAR BEZPERAK, ERULO EROLI, (1890-91).

Aire erasoa Napoleonen kontra

1812an Franz Leppich ingeniari alemaniarrak proiektu militar sekretu eta berritzailea proposatu zion Errusiako Gobernuari: bale itxurako globo aerostatikoen flota bat eraikitzea. 40 kideko eskifaia eta 12.000 lehergailurentzako tokia izango zuen globo bakoitzak. Alexander tsarrak proposamena onartu zuen, Napoleonen inbasioari airez erasota aurre egiteko asmoz. Leppichen hangarretik atera zen lehen globoak ez zuen aireratzea ere lortu; bigarrena metro gutxi batzuk altxa zen lurretik. Proiektua bertan behera geratu zen eta Leppichek Errusiatik alde egin zuen 1814ko otsailean. Errusiako Gobernuak 250.000 errubloko dirutza xahutu zuen.

Azkenean Errusiako muturreko hotzak egotzi zituen frantziarrak. Doan, gainera. ●

Ikusi
Hamaika
nahieran

www.hamaika.eus

Gai politikoekin jendearengana iristeko ikusleen ohiturak zalantzan jartzen ez badituzu, beti geratuko zara erdibidean”

JEAN-GABRIEL PÉRIOT, ZINEMA ZUZENDARIA

Parisko aldirietako ikasle batzuk kamera aurrean 60ko eta 70eko hamarkadako zine militanteko eszenak interpretatzen. Gazte horiek berak, jokatu berri dutenari buruzko galderak erantzuten. Eta bi egoeren artean, hutsune bat: iraganeko borroka politikoen memoria, gazteentzat ulertezina dirudiena. Langile klasearen porrotari buruzko filma izan zitekeen Jean-Gabriel Périoten *Nos défaites*. Hori baino gehiago da: politikaren berragerpenaz eta diskurtsotik ekintzara dagoen tarteaz gogoeta egitera gonbidatzen duen artefaktu bat. Donostiako Zinemaldian izan zela baliatu dugu zuzendariarekin hitz egiteko.

PABLO LA PARRA PÉREZ
DANI BLANCO

***Nos défaites* filmaren abiapuntua ezusteko enkontru bat da: Ivry-sur-Seineko institutu batera iritsi zinen, Parisko periferian, ikasle talde batekin zine tailer bat egiteko.**

Institutura iritsi nintzenean ideia bakarra neukan: hitzarekin lan egitea, hitza hartzeari buruzko eszenekin. Proiektua existitzen hasi zen ikasleei pelikula asko erakutsi nizkienean, herrialde eta garai diferenteetakoak, jasotzen zituztenak bizitzako egoera ugari, eta hitzen arrastoak. Une batean Medvekin Taldeen pelikula obreristetara iritsi ginen. Ez neukan horiekin bereziki lan egiteko asmorik, baina ikasleen erreakzioak ikusi nituenean ulertu nuen zerbait egin beharra zegoela. Batetik, harrituta zeuden langile klaseari buruzko pelikulak egin zitezkeela ikusita, gainera energiaz eta borrokaz gainezka egiten ari zen momentu batean. Bestetik, ez zuten ezer ulertzen. Ez zuten 68a ezagutzen, ezta politika ere; zerbait oso-oso urruna iruditzen zitzaien. Hortik aurrera asko hitz egin genuen. Eta ondorioztatu nuen, [zine militanteko] zatiak aztertzeko egin genezakeen gauzarik onena zela berauek erreproduzitzea, ulertuz nola dauden filmatuta, non zegoen mikrofonoa, zer esaten den. Hor hasi zen pelikula.

Artxibo-irudiak berriz antzezteko proposamen horrekin erantzun egin nahi zenion 68ari buruz daukagun ulerkera, nolabait, telebisibo bati? 2018ko 50. urteurrenean asko errepikatu ziren garai hartako irudiak...

Tragikoena izan zen konturatu nintzela 68a –niretzat historia garaikidea dena, mugimendu iraultzaile bat eta politika pentsatzeko nire moduan oraindik zentrala den zerbait–, ikasleentzat historia dela eta puntu, Karlomagno bezala. Nire intentzioa zen film zati horiek erreproduzituz eta filmatuz aukera ematea gaur egunean berriz agertzeko, beraien orainaldian. Muntaia-film bat egiten dudanean bezala da: artxibo-irudiak ikuslearen orainaldira ekartzea da kontua. Hemen ere gauza bera da, baina gorputzetik pasaz. Nire buruari galdetzen nion: historia hau izan daiteke beraientzat historia hila ez den zerbait? Berriz jokatu ote dezakegu orainaldian?

Filmean doitze falta deigarria ikusten dugu ikasleek film zati horiekin egiten duten birsorkuntza ia perfektuaren eta haien benetako ezagutza politikoen artean –badirudi ez dutela ulertzen erabateko prezisioz esaten dituzten hitzen esanahia–. Nola negoziatu zenuen tentsio hori errodatzen ari zinenean?

Pelikularen prozesuan ez nekien zein izango zen emaitza. Sei hilabete pasa nituen beraiekin eta ez nekien pelikularik baneukan ere. Dena joan zen sortzen errodatzen ari ginen bitartean. Oso ongi interpretatzen zituzten film zatiak: txunditu ninduen beraien inplikazioak,

eszenak ederrak ziren, oso ederrak. "*Remake*" bakoitzaren ostean elkarrizketak egiten nizkien. Momentu horietan konturatzen nintzen, egiazki, ez zituztela ulertzen interpretatu berri zituzten hitzak. Eta horrek pedagogiari buruzko galderak planetatzen ditu. Garbi zegoen ni nintzela gauza hain bakan hauei buruz hitz egin zien bakarra. Zalantzarik gabe, eskolan ikasi ez zuten zerbait zen. Beraien gurasoek ere ez zieten kontatu. Ez dago prentsan, ezta telebistan ere. Transmisio problema izugarria dago. Horrek zirrara eragin zidan, errodatzen ari ginela ikasi nuen, ez lehenago.

Mantes-la-Jolieko irudiek [poliziek hainbat ikasle belauniko jarrarazi eta tratu bortitza eman zieten; bideoak iritzi publikoa asaldatu zuen] erabateko aldaketa sartzen dute pelikulan, epilogo gisa. Zein izan zen hori filmean islatzearen inpaktua taldekideengan?

Ekainean errodatu genuen eta urrian muntaia itxi nuen epilogorik gabe. Orduan hasi ziren Jaka Horiak, ikasleen manifestazioak eta, bat-batean, Mantes-la-Jolie. Irudi onartezinak dira. Gazte talde bati eragiten ziotenez, Ivryko ikasleei galdetu nien gertaera horiei buruz. Orduan esplikatu zidaten beraien institutua okupatu berri zutela protesta gisa, pintaketa batzuk egin zituzten ikaskide batzuen aurkako errepresioaren aurrean, alegia, Mantes-la-Jolietik hain urrun ez dagoen zerbait. Momentu horretan, pelikularekin jarraitzea erabaki nuen eta azken sekuentzia hori egitea beraiekin. Asko harritu ninduen ikusteak nola hazi ziren hain denbora gutxian. Eta batez ere aukera eman zidan gai eternal batean esploratzeko: diskurtsotik ekintzara dagoen urratsa.

Aurretik irudi militanteekin egindako lanak politizazio prozesu azkar horretan garrantzirik izan zuela uste duzu?

Ez zehatz-mehatz. Beraiekin prozesuari buruz hitz egitean, denek erantzun zuten gauza bera. Esan zidaten pelikula egiten ari ginenean ez zutela ulertzen egiten ari ginen ezer. Nik ere ez. Arikeita moduko bat zen, gustatzen zitzaien, baina denok ulertu genuen egiten ari ginena beraiek institutua okupatzen hasi zirenean. Hainbeste zalantza, hainbeste galdera, dena lehertzen den arte eta benetan greba egiten duzun arte. Horrek eman zien aukera aurretik errodatutakoa ulertzeko. Pelikularen hasieran egunero piketeetara joaten den neska hura ikusten dugunean, konturatzen gara zerbait mugitu dela. Pelikulak ez zituen konprometituago egin, baina agian lagundu zien ulertzen zenbait egoera, *a posteriori* bakarrik konpreni daitekeen zerbait. Hala ere, zoritxarrez, zentzu literalago batean, uste dut errepresio poliziala izan zela azkar hazi arazi zituena.

Pelikulak ukitzen ditu zenbait gai Frantzian delikatuak direnak: hezkuntza nazionalaren paradigma auzitan jartzea, errepresio poliziala... Nolako harrera izaten ari da?

Kontraste handiko erreakzioak eragin ditu. Pelikula oso ongi ulertzen dutenak daude, debateetan auzi asko irekitzen dira. Baina badaude erreakzio oso-oso

biolentoak ere. Bada jendea akusatzen nauena ikasleekin aitakeriaz jokatzeaz, esaten dute tontoak edo ergelak balira bezala aurkezten ditudala. Oso bortitza iruditzen zait, jende hori bera baita gazte hauek tontotzat edo ergeltzat dauzkana. Ez dira gai ulertzeko haien hizkera mugatua gorabehera, pentsatzen, erreakzionatzen eta aurrera egiten ikusten ditugula. Helduok hor gauden arren, formazio falta hor dagoen arren, hitz egiten dute beraien buruak politizatzeko, greba egiteko eta une jakin batean beraien borrokan lotzen dira. Eta "gaizki" hitz egiten badute, hori da ez dizkiegulako gakoak eta hizkera eman. Azken batean, begiradari buruzko historia bat da zeinak, ororen buru, klasearen ideia batera garamatzan. Ezkerreko ikusle burgesak beti ikusi nahi du berak benetan pentsatzen duena. Hortaz, gazteek, eta bereziki aldirietako gazteek, zailtasunei aurre egiten dieten pertsonak izan behar dute, energiaz beteak eta behar den bezala hitz egiteko gai. Zerbaitek ez badu eskema horrekin bat egiten, mesfidantzak pizten dira. Biolentoa da, klase-begirada traizionatzen duelako. Pobreek, beltzek, maritxuek... estereotipo izan behar dute. Hori gainditzen badute, transgresiboa da.

Ez da zure pelikulek desjabetuen inguruko estereotipoak antzaldatzen dituzten lehenbiziko aldia. Adibidez, kartzeletan errodatutako pelikulak datozkit burura.

Bai, adibidez *Le jour a vaincu la nuit* pelikularengatik presoez barre egitea leporatu zidaten. Gaizki hitz egiten dute frantsesez, ez dira guapoak, gaizki kantatzen dute. Desjabetuek jendaurrean aurkezteko modukoak izan behar dute, Molièren hizkuntza ongi ezagutu, akatsik gabe adierazi... Hau bereziki terriblea da kartzelan, sarritan "frantses ona" hitz egiten ez duen jendea edo "ongi janzten" ez dena izaten delako kartzelan bukatzen duena, abokatu on bat ordaindu ezin duen arrazoi berberagatik. *Nos défaites*-en gazteek ez dauzkate adierazteko hitz egokiak eta batzuei iristen zaiena da beraietaz barre egiten dugula inozoak direlako. Ez dute batere ahaleginik egiten haiei entzuteko.

Lan formala beti da hil ala bizikoa zure pelikuletan. Horrek ere talka egiten du zinema konprometituaren tradizio "onbera" samar batekin, Ken Loach-etik hasi eta telebistako lengoaiarekin egindako zenbait dokumental "politiko"-taraino. Badago bataila politiko bat forman ere?

Niretzat, logikoki, bai. Diskurtsoa eraikitzean etsaiaren armak erabiltzen baditugu, galdu dugu. Gai politikoekin ikusleengana iristeko zine klasikoa egin behar bada, ikuslearen ohiturak zalantzan ez jarri, orduan, beti geratuko gara erdibidean. Telebistaren lengoaia bere egiten duten pelikulak edo aurreikusten erraza den forma bat dutenak, dekoratiboak iruditzen zaizkit, horri kritiko deitzea ez dago ongi. Begira pobre hauek nola egiten duten aurrera, suntsitzen duten basoa, zaindu birziklapena. Zentro-ezkerreko pelikulak, Alain Brossatek "kontsolamendu pelikula" deitzen dituenak. Alegia, atseginak zaizkigu, emozionatu gaitezke jende pobrea ikusiz eta gure buruei esanez "bai, ezkerrekoa naiz". Sarritan, hortik harago doazen pelikulak forma lantzen ahalegintzen direnak izaten dira. Kontua honakoa esatea da: adi, hemen posizio-hartze bat ikusten duzue, hitza hartzeko modu bat desberdin espresatzen dena. Azken finean, argi utzi behar da erakusten duzun errealitatean beti daudela erabaki formal kontzienteak. Beste proposamen hau, nirea ere badena: inoiz ez saiatu ikuslearen ohiturentzat atsegina izaten.

> **"Ezin dituzu pobreei buruzko pelikulak egin pobre batek bere bizitza guztian kobratuko duena baino gehiago irabazten duen jendearekin"**

Sarritan aipatu izan duzu erreferentzia gisa Dziga Vertov taldearen 1970eko manifestua eta haren lema: "Politikoki egin behar dira pelikula politikoak". Alegia, lan prozesuak politizatzeari garrantzia ematea, eduki politikoak dauzkaten irudiak ekoiztearen aurretik. Nola egin gaur egun politikoki pelikula politikoak?

Era askotara egin daitekeela uste dut. Baina badago zerbait niretzat baitezpadakoa izaten hasi dena: inoiz ez da ekonomia galdekatzen zine politikoarekin. Frantzian maiz estreinatzen dira sentimendu onez eta aurrekontu handiz eginiko filmak. Beti pobreak diren pelikulak, 4.000 edo 5.000 euro kobratzen duten aktoreekin eta lau, bost edo sei milioi euroko aurrekontuekin. Zer zentzu dauka horrek? Zer zentzu dauka politikoki? Ezin dituzu pobreei buruzko pelikulak egin pobre batek bere bizitza guztian kobratuko duena baino gehiago irabazten duen jendearekin. Produkzio terminoetan, badago zerbait guztiz ilogikoa dena. Hori ez da pelikulan ikusten, baina badago diruaren etika bat, sarritan diru publikoarena: ez gastatu behar ez duzuna, baita horren ondorioz kamerarik onena edukiko ez baduzu ere. Oso kontuan dudan zerbait da. Formalki oso urrun banago ere, 60ko eta 70eko hamarkadetako Chris Markerrez akordatzen naiz askotan. Fabriketara joaten zen, bere denbora ematen zien teknikariei, beste zuzendariei. Niretzat hori da politikoa, pelikulak politikoki egitearen zentzuan. Militantea izatea, zeren sarritan militante izateak esan nahi du gauza batzuk egitea ez dutenak zertan irabazirik eman. *Nos défaites* bezalako pelikula baten aurrekontu osoa 35.000 eurokoa da. Zenbait debatetan burgestzat hartzen nautenean begirada paternalista daukadalako... Tira, ekarri niri 35.000 eurorekin pelikulak egiten dituzten zuzendariak! Eta ez nuen gehiago behar! Diruari dagokionez, zuzen jokatu behar duzu egiten duzunarekin. Eta hori ikusezina da. Niretzat, ekoizpena problema inportante eta konkretua da eguneroko praktikan. Diruarekin egiten dudanagatik kontzientzia txarrik ez edukitzeak asko laguntzen dit zutik eusten.

Zinemaren ekonomia politikoarekin daukazun kezka horrek ba al du zerikusirik zure ezohiko ibilbide zinematografikoarekin? Zuzendari lanetara muntatzaile lanetik iritsi zinen...

Ez. Zerikusia dauka langile klaseko familia batetik etortzearekin. Beti izan ditugu problemak hilabete amaierara iristeko. Profesio honetan sartu nintzenean eta nire pelikulak egiten hasi nintzenean diru pixka batekin, beti kobratu izan dut SMICa [gutxieneko soldata Frantziako Estatuan]. Beti esaten diot nire buruari: hara, hau langile baten edo zerbitzari baten hiru hilabeteko lana kostatzen da. Noski, inbertitu behar da kameretan eta ongi ordaindu behar zaio zurekin lan egiten duen jendeari. Baina horrek alertan egoten laguntzen dizu. Soldatatan kontatzen hasten zarenean, dena iruditzen zaizu izugarri garestia. Baita pelikula merke bat ere. *Une jeunesse allemande*: 800.000 euro. Horrek galdera-zaku oso handia ekarri dit. Pelikula hau hainbeste diru kostatzeko bezain inportantea da?

Baina hamar urtez lan egin zenuen proiektu horretan...
Bai, baina horrek ez du problema aldatzen. 800.000 euroak batez ere irudiak erosteko ziren. Kasu horretan soldata ez zen garestiena. Adibidez, artxibo-irudien zati bat 15.000 euro kostatzen da, alegia, zati batek balio du norbaitentzat soldata izugarri batek adina. Hau benetan beharrezkoa da? Jatorri sozialarekin lotutako problema da. Iruditzen zait zinegile gehienak familia onetatik datozela eta bestelako harremana dutela diruarekin; eta haientzat hori ez da problema: inoiz ez dute aski. Niretzat, problema gehiegi edukitzea da.

Artxibo-irudien merkantilizazio hori bereziki absurdua da ezker erradikalaren irudiez ari garenean. Nola eragin dio horrek zure lanari, historiaren berridazketan hainbesteko kezka edukita?
Sekulako problema da. Ezin ditugu kontra-historiak egin edo idatzi historia ofizialari aurre egiteko. Arrazoi sinple batengatik: inork ez dauzka bitartekoak. Artxiboetara lasai ederrean sar daitezkeen bakarrak telebistak dira edo BBCren tankerako superprodukzioak. Eta noski, idazkera ofizialaren ildoan kontatuko dituzte historiak. Hortaz, kontra-historiak kontatzeko daukagun modu bakarra lapurtzea da. Debordek esaten zuen! Problema hor zegoen ordurako. Salbuespen oso arraroak badira eta hori da *Une jeunesse allemande* egitera bultzatu ninduen energia. Nire buruari esan nion egoskorra izan behar nuela kontra-historia saiakera bat egiteko punturaino. Eta horretarako jokoan sartu behar zen: dirua lortu eta gainontzeko guztia. Hori zen modu bakarra kontatzen diren gertakariekin fidela izango zen pelikula bat egiteko baina nahiko agresiboa izanez. Baina salbuespen gisa geratzen da.

Behin zinemaren gaitasun politikoaz esaldi eder bat idatzi zenuen: "Gure errealitatean zulo txikiak egiten dituen erreminta, esperantza guztiz ez galtzen laguntzen diguna eta, batzuetan, mirakuluen antzeko modu batean, borrokatzen jarraitzeko gogoa ematen diguna". Utopiaren garra piztuta mantentzea da zinemaren azken ardura politikoa?
Zinema politikoaz edo militanteaz hitz egiten hasten garenean, arazoa, nire ustez, umiltasun falta izaten da. Zuzendariez ari naiz batez ere. *Une jeunesse allemande*-n nire buruari planteatzen nion problema hori zen: pentsatzen dute pelikulak eginez iraultza egiten ari direla eta puntu horretan frakasatzen dute. Eta jende asko dago zinemari fede ia magikoa diona. Artista guztiek uste dute politika egiten dutela, baita egiten ez dutenean ere, garaiaren espiritua da: badirudi artista izate hutsak errealitatean eragitea dakarrela. Proiekzio moduko bat dago, asumitzen duena zinema zerbait aktiboa izango litzatekeela, zerbait benetan politikoa, ekintza bat bezala. Iruditzen zait oso-oso umila izan behar dela. Zinema, artea orokorrean bezala, bitarteko bat besterik ez da, tarteka konturatzeko ez gaudela bakarrik, pelikula bat ikusten dudanean beste zuzendari batzuk edo beste pertsona batzuk daudela publikoan elkarrekin egoteko premia dutenak; eta horrek adorea ematen digu, indarra. Baina beste gauza askoren artean dagoen zerbait da, eta nolanahi ere, pelikula bat inoiz ez da aski izango. Bizirauten laguntzen diguten elementuetako bat da eta, niretzat, hori bera ez dago batere gaizki. Askotan, eztabaidetan esaten da, kontrara, zine politikoaren gaitasunaz zalantza egiten baduzu horrek esan nahi duela zineak ez duela ezertarako balio. Eta ez! Zinemak ezin du gauza handirik egin, baina ezinbestekoa da. ●

> **"Ezin ditugu kontra-historiak egin historia ofizialari aurre egiteko: inork ez dauzka bitartekoak"**

LIBURUA

Igeri dago



NAUFRAGOEN ALTZOA
GORKA SETIEN
EGILEA EDITORE, 2019

IGOR ESTANKONA

Minoreak izan ohi dira irakurtzen ditugun zenbait obra, apala euren helburua, mugatua norainokoa. Gorka Setien Berakoetexeak *Naufragoen altzoa* horrelaxe atera du, liburu fin-fin bat da, azala ere argal-argala, ideia zenbait eta mamu zenbait bertan uzteko, eta ez zitezen ibili, agian, buruan bueltaka: "Laztana/ bixotza/ maittia/ disekatutako txorien izenak/ besterik ez dira aunitzetan".

Ramon Agirre, Eneko Olasagasti eta Maripi Solbesekin batera idatzitako *Eta zergatik ez... Sigrid?* heterodoxo harekin hasi (Susa, 1983) eta bururatu ahala erreskadan idatzitako *Ez sinkronia* (Susa, 1985) jarraitu, Gorka Setienen pultsu poetikoa lurperatu eta hurrengo mendean azaleratu zen berriro –*Aparkalekuko felizidadia* eta *Ertzetako inkomunukazioak*– eta orain orrialde hauetara dator luma hark egundo deskantsatu izan ez balu bezala, tinta falta izan balu bezala urteokaz.

Estilo jakin bat daukalako Gorka Setienek aurriekin egina, hondoratu ziren zatiekin eraikia. Ideia itxura batean lotura bakoekin josi du oihal bat aski grisa: "Aspaldi ostu zidaten ama/ hautsi zidaten desioa/ito umea eta bideratu/ hortik gerora guztia/eta/orain/limoiak/ ere bai".

Pentsa daiteke "eta" edo "orain" edo "limoiak" ezin daitezkeela poema bateko lerro izan, ez daukatela nahikoa funts eurek bakarrik eusteko euren buruari, baina Gorka Setienek horrela idazten du, instintiboki idazten du, ez du, ezagun denez, atzera begiratzen. Liburua horregatik da freskoa eta zabarra, azalekoa eta enigmatikoa: "Desio batek/ desio antzinakoenak/ lehena iratzar dezake eta/ tiranoaren eraikinean urradura definitiboa eragin/ utopiak odola duela erakusteko/ odolak basoa/ basoak sustraiak/ sustraiek mugimendua".

Naufragoen altzoa ezin da irakurri beraz poema liburuak irakurtzen diren antzera, ezpada fanzineak irensten genituenean bezala, laino batean. Akatsak eta ahuleziak dauzka, baina kritika hau merezi zuen, nahiz eta esku artean hartu eta apunte batzuk diruditen hasiberri batenak. Beharbada horregatik, ez delako gorena baina enkoadernatu eta opatu egin digulako izan da hain xamurra irakurketa. Boluntarista delako. ●



MUSIKA

Argerich edo "le toucher"

Kremerata Baltica orkestra eta Martha Argerich piano jotzailea (ondoko argazkian).

KREMERATA BALTICA
BAKARLARIAK: MARTHA ARGERICH (PIANOA), ETA MATE BEKAVAC (KLARINETEA).
EGITARAUA: BACH, LISZT ETA WEINBERG-EN OBRAK.
DONOSTIAKO KURSAAL AUDITORIOA AZAROAREN 23A

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

XX. mendean mito ugari daude pianoaren munduan, eta horietako bat, dudarik gabe, Martha Argerich pianista argentinarra da. Haur prodijioa izan zen. Lau urterekin eman zuen bere lehenengo errezitaldia eta zazpi urte zituenean Mozarten piano eta orkestrarako kontzertu bat interpretatu zuen. Juan Domingo Perón konturatu zen haren izugarrizko talentuaz eta Vienan egindako ikasketa guztiak ordaindu zizkion. Handik aurrera karrera luze eta oparoa egin du mundu osoan, grabaketa ugari, eta beti frogatu du teknika akats gabea, musikaltasun erakargarria eta jotzeko era berezia dituela. Kursaaleko saio honetan musikazale frantses batek esaten zuen ikaragarria zela andre honen *toucher* hori. Zaila da itzultzea hitz hau: ez da pultsazioa edo pianotik ateratzen den soinua. Agian hori guztia da *le toucher*, gehitzen badiogu kontzeptu horri artistak lortzen duen giroa eta entzuleekiko komunikazioa.

78 urterekin, Argerich andreak mantentzen du bere kemena pianoan eta, bai, bere edertasun fisikoa. Gustua ematen zuen ikustea bere betiko adatsarekin, grisa gaur egun, bere soineko dotorearekin eta bere irribarre jostalari horrekin. Hori bai, pianoan eseri bezain pronto, musikari basatia ateratzen da eta zur eta lur gelditzen da publikoa.

Bachen *2. Partita do minorrean BWV 826* jo zuen hasteko. Perfekzio hutsa sei mugimenduetan. Zerbait nabarmentzeagatik, *Sarabande* izeneko laugarren mugimendua ñabarduraz beteta iritsi zitzaigun, delikatua, eta azkeneko *Capriccio*an modu zoragarriz markatu zituen azentuak, efektu ederrak lortuz.

Jarraian, Liszt-en *Piano eta orkestrarako 1. Kontzertua, mi bemol maiorrean S. 124* jo zuen, Kremerata Baltica taldearekin batera. Gilles Collardek ganbera orkestrarako egindako bertsioa interpretatu zuen. Bitxia izan zen hainbeste aldiz orkestra handiekin entzundako lan distiratsu hau oraingo honetan sokazko talde txiki baten eskutik entzutea. Freskotasunez eta perfekzioz aritu zen Argerich Andrea.

Bigarren zatian, Kremerata Baltica taldea eta Mate Bekavak klarinete jolea protagonistak izan ziren. Bachen *Chacona re minorrean* doi eta dotorea entzun genuen, eta Weinbergen *4. Ganberako Sinfonia op. 153* kolorez eta ehunduraz beterikoa disfrutatu genuen. Oso ona. ●

Elkartasun olatuak

MARTA SENDIU ZULAIKA · DOSPORDOS

Gaurkoan, elkartasun uholde musikatu batean murgilduko gara. Protagonista nagusiak Angela, gazte gasteiztarra, eta haren lagunak izango dira, baina ez dira bakarrik egongo. Gari, Libe, Anari eta Jon Basaguren izango dituzte bidelagun, baita Jimmy Jazz aretora gerturatu diren ehunka entzule solidarioak ere.

Izan zaitez neu lelopean, Leocadia Zabaleta elkarteak antolatu duen jaialdiak helburu bat dauka: garunean gehiegizko burdina metatzeko joera duten endekapenezko gaitzak ikertu eta azaleratzea. Gaitz hauek erruki gabe harrapatzen dituzte gaixoa eta haren inguruko familiaren eta lagunen bizitza. Bizi-itxaropena murriztu egiten da, erabateko mendekotasun eta heriotza goiztiarrera kondenatuz.

Bizitzan izaten ditugun momentu gazi-gozoen alderdi onena ospatzeko asmoz jarritako hitzorduari hasiera eman dio Libek. Oholtza gainera igo da oinutsik, eta bere piano eta ahots paregabearekin liluratu gaitu. Emozioek hartu dute abeslaria eta negar tantei eusteko ahaleginean Gariren kanta baten bertsioa abestu digu.

Haren atzetik, Hertzainakeko abeslari ohia igo da eszenatokira. Gitarra du esku artean eta base elektroniko batzuek laguntzen dute bakarlariaren ahotsa. Lau abestiz osatutako kontzertu bildumaren erdialdera hurbildu gaitu Anarik. Berak ere gitarra lagun, *Oreinak* kantaren ondoren, Izaki Gardenak taldearen *Ekaitzen arrazoien bila* abestia eskaini digu Liberen koruekin lagunduta.

Jon Basagurenen txanda da orain, eta *Dena Oskol* diskoko bi abesti jo eta gero, antolatzaileei eskerrak eman dizkie. Egunero egiten duten lana goraipatu du eta lehen lerroan zeuden Angelari eta gurpildun aulkiko lagunei zuzendu zaie, emozioz beteta. Liberen *Bidea* abestiaren country bertsioarekin eman dio amaiera Basagurenek.

Hunkigarria izan den gau honetako oroitzapenak ez ahazteko, argazki jendetsu bat atera dute oholtza gainetik. Ordu batzuetan bada ere, Angela eta bere lagunen bizitzetan murgildu eta haiek izan gara. Olatu txikiz osatutako elkartasun tsunami erraldoiak sortu dezakeen indarrak, Angela eta bere lagunen bihotzetan lurrikara sortu dezan. ●

EGILEA | **ANA ZAMBRANO**

Hitz gezidunak

ARNOLD PAUL

KABELLEGER / DAVID GUBLER

WAGNER CHRISTIAN

JESSIE EASTLAND

- Umegaia, enbrioia / Leuntasun
- Gorbata / Alderdi karlista
- Higitzen ez dena / Aisatu aditzaren erroa
- Egokia / Hondakin, soberakin
- 1 / Eserleku, jarleku
- 2 / Arabiar dinastia
- Hutsak, erruak / Anperea
- Helburua, xedea
- 3 / Solairu
- ... egin, eskaini eta ez eman / Tesi
- Infusioa / Luzeena
- Uranioa / Truke
- Latorrizko ontziak / Bi bider bi (alderantziz)
- Adarrak ebaki / Adar txiki, kima
- Abaguneak, aukerak / Ekartzen nau
- Jasangaitz, gogor / Elementu kimiko
- Noraino atzizkia / Saldu aditzaren infinitiboa
- Faltsu / Asiako estatua
- Autonomi Elkartea / Roentgen
- Harremana, erlazioa / Bihurgune
- 4 / Irrika, gogo bizi
- Sortu zintuena / Matematikan, zatikia
- Hitz ematea / Azkena

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

			7		4		9	
			3	1				4
4	3	6			5			
		9		8				
		1	5		3	8		
				7		1		
			1			3	6	8
3				4	8			
	7		6		9			

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Entzutea, ospea
2. Nahasteak
3. Izaera, mendu
4. Ugaztun itsu
5. Errenta, alokairu

EBAZPENAK

5x5:

1. HOTSA
2. OREAK
3. TENTU
4. SATOR
5. AKURA

8	1	2	7	6	4	5	9	3
5	9	7	3	1	2	6	8	4
4	3	6	8	9	5	7	2	1
7	5	9	4	8	1	2	3	6
6	4	1	5	2	3	8	7	9
2	8	3	9	7	6	1	4	5
9	2	4	1	5	7	3	6	8
3	6	5	2	4	8	9	1	7
1	7	8	6	3	9	4	5	2



Rafa Aldai

KLIMA ALDAKETA, GERTUTIK

KONTZIENTZIA ETA PRAKTIKA

"Ingurumen hezitzailea naiz, eta klima aldaketari buruzko gaien bueltan nabil lanean, Nafarroako Lursarea sozietate publikoan. Aspaldi ari naiz arlo horretan lanean, aurrez Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroan. Militante ekologista izan naiz, eta neurri batean, banaiz oraindik ere".

"Bizitza balore berrietan oinarritzeko aukera da klima aldaketa"

Gerturako betaurrekoekin begiratzen dio Rafa Aldaik klima aldaketari, tokiko eskalan –gure hiri eta herrietan– dituen ondorioei erreparatuta. Arazoa bezala, konponbidearen parte bat tokian toki ere badagoela uste du, datorrenari egokitzeari dagokionez behintzat. Eta argi du fenomenoak, onik badakar, gure balore eta bizimoduan aldaketa erradikala ekarri beharko lukeela.

ANDER PEREZ JOSEBA ZABALZA

Klima aldaketa mundu mailako arazo gisa azaldua izan da. Tokikoa ere bada?
Bai. Ondorio argiak pairatzen hasi gara: tenperaturen igoera, bero bolada geroz eta ohikoagoak, muturreko fenomenoen hazkundea, itsas mailaren igoera... Horietako bakoitzak ondorio zuzenak ditu. Tenperaturaren igoerak, adibidez, pertsonen osasunean eragiten du, uraren kalitatea aldarazi dezake, eta kalte egin diezaioke laborantzari. Bero boladek hilezkortasuna handitzen dute. Klima aldaketak, gainera, gaixotasun berriak eragin ditzake. Jarduera ekonomikoan ere badu eraginik, adibidez elur turismoan, baita zenbait ekoizpenetan ere.

Errazago kontzientziatzen da jendea arazoa gertu dagoenean?
Hainbat neurriren konbinazioa behar da, antolaketan, eraikuntzan, hezkuntzan... baita energia pobreziaren aurka egitea ere. Klima aldaketa estuki lotuta dago energiaren kudeaketarekin, isurketen %70a lotzen da energiarekin. Beraz, araudia zorroztu eta geroz eta muga gehiago ezartzen bazaio energia sektoreari, litekeena da baliabide ekonomiko gutxien dutenak izatea kaltetuen. Konpentsazioak beharko dira, energiaren garestitzea ez dadin izan klase apalenen kalterako.

Beraz, klima aldaketak ere –*a priori* neutroa dirudienak – ez digu denoi berdin eragiten?
Ez, inondik inora. Bidegabekeria erantsia da, bai ipar-hego ardatzean, eta gure gizartean bertan. Iparraldeko gizarteak dira klima aldaketaren azkartzea eragin dutenak, baina hegoaldekoak ari dira kalterik handienak pairatzen, eta gainera, horiei aurre egiteko bitarteko gutxien dutenak ere badira.

Tokiko arazoetarako, tokiko konponbideak?
Bai. Bi estrategia daude klima aldaketaren aurrean. Bata da negutegi efektuko gasak murriztea, hau da, arazoaren iturburuari aurre egitea. Ekintza horrek globala behar du: Iruñeak isurpenak zerora murriztuko balitu ere ez luke jatorrian eragiterik izango, isurketa globalean

"BATEN BATI ENTZUN DIOT: 'BIDAIATZEKO ESKUBIDEA DAUKAT'. BAI ZERA! BIZITZA ZORIONTSUA IZATEKO ESKUBIDEA DUZU, BAINA AGIAN BIDAIAK MUGATUKO ZAIZKIZU, ZURE ISURKETEN KUOTA GAINDITU DUZULAKO".

dagoelako gakoa. Bigarren estrategia egokitzapena da: klima aldaketa hemen dago, ezinbestekoa da horretara egokitzea. Egokitze hori tokian tokiko estrategiei dagokie batez ere.

Zer estrategiak dira horiek?
Adibidez, Iruñea klima aldaketaren aurrean egokitu daiteke, bere espazio publikoak tenperaturaren igoerara egokituz. Ibaien ur-goraldien aurrean, alerta sistemak ezarri ditzake. Finean, edozein plan garatzerakoan, gakoa da ez hartzea oinarri gisa egungo egoera, etorkizunekoa baizik. Pentsa arbolak landatzera zoazela: etorkizuneko klimara egokitutako arbolak landatu beharko zenituzke. Palmondoak, urkien partez. Berdin eraikinekin, edo errepideekin.

Dena dela, datorrenera egokitzeko neurriak dira denak. Ez dago saihesterik?
Gauza bat argi da: hemendik urte batzuetara planeta ezberdin batean biziko gara, eta sufrimendua ahalik eta txikiena izateko gure esku dagoen guztia egitea dagokigu. Beharrezkoa da hori modu komunitarioan egitea, taldean, hori delako berme handienetako bat. Bada kontu bitxi bat: hondamendien aurrean (Tafallakoa, edo *Katrina* hurakana), jendeak bere onena ematen du, eta guztiz gainditzen ditu administrazioen larrialdi planak. Indar horretan sakondu behar dugu. Bizitza balore berrietan oinarritzeko aukera da klima aldaketa, orain arte gure gizartea oinarritu duten baloreetatik urrunduz.

Nola goaz bide horretan?
The Guardian-eko kazetari batek, Parisko akordioen ostean, halako zeozer esan zuen: "Izugarri aurreratu dugu, baina oso gutxi da behar dugunerako". Orain gutxira arte, lehorte informatiboaz aritzen ginen. Orain, aldiz, gazteek –eta batez ere, emakume gazteek– bultzatutako mugimendu bat dago, eta dena ari dira mugiarazten. Erakundeen aldetik adierazpen asko entzuten ari gara. Mobilizazio sozialak lortu beharko luke horiek edukiz betearaztea. Zorionez, kontzientzia badago, baina klima aldaketaren abiadura hain da azkarra, ez dakigula denborarik izango dugun. Ezinbestekoa da eredu ekonomikoa aldatzea.

Ba al dago horretarako borondaterik?
Gurean, isurketak murriztu diren garai bakarra krisi ekonomikoaren garaia izan da. Beraz, argi dago klima aldaketa erabat lotuta dagoela etengabe kontsumoa handitzea bilatzen duen gure eredu honekin. Nola atera gaitezke sistema horretatik? Nola egin Iruñea edo Bilbo bezalako hiriek bere karbono aztarna zerora murrizteko? Auto fabrikak itxiko ditugu, ados, eta zertaz biziko dira langile horiek? Edo elkartasuna dago sektore kaltetuak laguntzeko, edo... Gauza askori uko egitea eskatzen du horrek.

Baina egin behar da?
Bai, beharrezkoa da. Batez ere, zenbait balore eta eskubide faltsuri egin behar zaio uko. Baten bati entzun diot: "Bidaiatzeko eskubidea daukat". Bai zera! Bizitza zoriontsua izateko eskubidea duzu, baina agian bidaiak mugatuko zaizkizu, zure isurketen kuota gainditu duzulako. Mugikortasunerako eskubidea dugu, noski, baina mugikortasun jasangarri eta publikorako, ez auto pribaturako. Bidaia exotikoak baino gehiago, hasi beharko genuke gertuko jakintza baloratzen. Aukera dugu gure bizitzan aldaketa erradikala egiteko, beharrezkoa. Espero dezagun garaiz ibiltzea. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

Ezusteko aldaketa baten ondorioz, estatutu berriak ez du munduko gosearen problema ere konponduko

EAErako estatutu berriaren eztabaidaren ondorioz, pixka bat apaldu egingo da EAJk eta EH Bilduk adostu zutena. Erabakitzeko eskubidearekin zer gertatuko den ikusteko dago –alegia, ikusteko dago nola esplikatzen duten azkenean ez dutela sartuko–, baina aste honetan beste kontu batek harrapatu du mundu guztia ezustean: kalkulagailuak pixka bat astindu ondoren, Legebiltzarreko kontu hartzaileek azaldu dute ezinezkoa izango dela estatutuaren bidez munduko gosearekin amaitzea. "Penatuta egin gaude puntu hori estatus egin berritik kendu egin behar dugulako", adierazi du Iñigo Urkullu lehendakariak. Arnaldo Otegik berriz, EH Bilduren izenean ahapeka EAJ kritikatu ondoren, eskua luzatu die jeltzaleei "gosea kentzeko ez bada, gutxienez tripa pixka bat engainatzeko". PSEtik Idoia Mendiak adierazi du "munduko gosea euskal hiritarron gosea ere" badela, "beraz gure dietak ziurtatzea da lehentasuna". Elkarrekin Podemoseko Lander Martinezek Pablo Iglesiasen deiaren zain jarraitzen du adierazpenak egiteko –okupatuta omen dabil bizepresidentzia asaltoz hartzen– eta PPtik Borja Semperrek adierazi du Donostia oso polit dagoela orain jarri dituzten argitxo horiekin. ●



Gipuzkoako
Bertsolari Txapelketa 2019

Finala

Abenduak
14 17:00
Donostia. Illunbe (Donostia Arena)

Agin Laburu Rezola
Beñat Gaztelumendi Arandia
Jon Maia Soria
Alaia Martin Etxebeste
Ane Labaka Mayoz
Oihana Iguaran Barandiaran
Beñat Lizaso Alberdi
Nerea Elustondo Plazaola

Aurkezleak: Ion Zaldua Brit eta Itziar Etxezarreta Arakistain

Antolatzailea

Babesleak

Laguntzailea

www.bertsozale.eus

Gerra Zibilaren lekukotzarik esanguratsuena.



ORAIN EUSKARAZ

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA